



JOKORAKO TOPALEKUA

Kartetarako zaletasuna izan dutenen taberna izan da Arrona, urte luzez. Iazko abenduan itxi zituen atea, teilatua erorita. 34

ETORKIZUNERAKO JANTZITA



▶ Batxilergoan etorkizunerako oinarriak elkarrekin jarriko ditugu

▶ Heldutasunerako eta lan mundurako ezagutzak jasoko dituzu

▶ Ikasketa maila guztietarako atea zabalik izango dituzu

Batzilergoko matrikulazio epea: maiatzaren 2tik 14ra

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.

ATE IREKIAK

Maiatzak 7 (asteartea)
17:00etatik 19:00etara

Hitzordurako: 943 15 12 46

Udaberri honetan, aukeratu Miele bat prezio benetan harrigarrian



Garbigailua W 3164 LW Edition 111

- Altzairu herdoilgaitzeko Softtronic tanbor eskusiboa. 1etik 7 kg-ra.
- Zentrifugatua: 400etik 1.400 bira minutuko.
- Bukatzeko falta den denbora adierazlea.
- Etiketa energetikoaren araberako sailkapena: A+B

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.122,93 €**



Garbigailua W 3370 LW

- Altzairu herdoilgaitzeko Softtronic tanbor eskusiboa. 1etik 7 kg-ra.
- Zentrifugatua: 400tik 1.400 bira minutuko.
- 24 ordu arteko aurretiko aukeraketa.
- Bakarrik garbitzen den detergente tokia.
- Etiketa energetikoaren araberako sailkapena: A++B

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.229,58 €**



Arropa-lehorgailua T 8860 WP LW bero bonba

- Bero bonba eta kondentsazio bidezko lehorgailu elektrikoa.
- Altzairu herdoilgaitzeko Softtronic tanbor eskusiboa. 1etik 8 kg-ra.
- Energia aurrezteko Perfect Dry lehorte sistema.
- Etiketa energetikoaren araberako sailkapena: A (-46%)

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.229,58 €**



Gomendatutako prezioa*

799 €



Gomendatutako prezioa*

999 €



Gomendatutako prezioa*

999 €



Ontzi-garbigailua G 4210 SC Brws Special

- Mahai-tresnentszat bandeja.
- Edukiera: 14 zerbitzu normalizatu.
- 5 garbiketa programa.
- Zarata gutxikoa, 51 dD(A) re1pW bakarrik (DIN EN 60704-3).
- Ur-kontsumo baxukoa, 13 litro bakarrik.
- 24 orduko aurre aukeraketa.
- Bukatzeko falta den denbora adierazlea.
- ComfortClose atea itxeko sistema berria.
- Etiketa energetikoaren araberako sailkapena: A+

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **799,99 €**



Gomendatutako prezioa*

599 €



Ontzi-garbigailua G 4220 SC ED/Clst Front

- Mahai-tresnentszat bandeja.
- Edukiera: 14 zerbitzu normalizatu.
- 5 garbiketa programa.
- Zarata gutxikoa, 51 dD(A) re1pW bakarrik (DIN EN 60704-3).
- Ur-kontsumo baxukoa, 13 litro bakarrik.
- Altzairu herdoilgaitzeko diseinudun tapa, ertz zinkatuak.
- 24 orduko aurre aukeraketa. Bukatzeko falta den denbora adierazlea.
- ComfortClose atea itxeko sistema berria.
- Etiketa energetikoaren araberako sailkapena: A+

Berezko prezioa (BEZ eta RAEE bame) **1.127,03 €**



Gomendatutako prezioa*

799 €

Azkoiti-Azpeitiko Banatzaile Ofiziala:

**MILAR
LARRAMENDI**

Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 150.a (2013ko maiatza)

Urtea. XIV.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730792 /

uztarria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilerro

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. A. Agirrezabala

Webgunea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde

publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



azpeitia
udala

**Uztarririk
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarrria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkarian

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



2013KO MAIATZEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Udaberrian alerjiarik izaten al duzu? **13**

mamia

Mikel Ayerbe. 'Our Wars' liburu antologiak, luze eta zabal **04**

Klik! Herriko hainbat eskulturen argazki bilduma ikusgai **16**

Hezkuntza erreforma.

Herriko ikastetxeak kezkatuta, Wertzen erreformarekin **20**

Auzokonposta. Urte hasieratik ari dira Urrestillan **24**

jakiteko

Arronaneak. Sei hamarkada eta gero, ateak itxi ditu **34**


Ba al dakizu Elkartasun Eguneako herri-kiroletako taldeak, aurrenekoz, parekideak izango direla? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu**, **CD 1** eta **biografiak txikiak** ateratu ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean. 110.000 euroko aurrekontua dugu 2013an.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpirtarte 'Kabra', Enrike Zurutuza

MIKEL AYERBE

‘Our Wars’ liburuaaren egilea

“Aitortzen dut: ezin naiz irakurri gabe bizi”

Bere lehen liburua, ‘Our Wars: Short Fiction on Basque Conflicts’, Mexikoko Guadalajarako Nazioarteko Liburu Azokan aurkeztu du Ayerbek. 📖👁️ Eneritz Albizu

Mexikotik Gasteizera, eta Gasteiztik Azpeitira bueltatu da Ayerbe, Uzta-riari bere liburuz eta ibilbide profesionalaz hitz egiteko asmotan. Azken urteetan, atzerriko irakurleei gure kontuak helarazteko lanean aritu da; eta orain, herritarri bere esperientzia kontatzea suertatu zaio azpeitiarrari.

Bizitzan egin dituzun aukera guztiek literatur jardunera bideratu zaituzte: nondik datorkizu literaturarenganako maitasuna?

Gaztetatik garbi izan dut literaturaren mundua gustatzen zaidala. Irakurtzea pasioa zen niretzat, eta oraindik ere halaxe da. Unibertsitate ikasketak aukeratzeko unea iritsi zenean, literatura ikasten ja-

rraitu nuen: Euskal Filologia Gasteizen, Literatur Teoria eta Literatur Konparatua Bartzelonan eta Literatur Zientziak doktoretza EHU-n. Sorkuntza ez zela nirea argi ikusi nuen; literaturaren kritika edo azterketa egitea gehiago gustatzen zitzaidan, eta horri eutsi nion.

Orduan, ez duzu sortzailetzat hartzen zure burua.

Kritikariok ere sortzaileak gara, nahiz eta hala ikusten ez den. Ez dugu gure lana ezerezetik sortzen edo fikzioa egiten, besteen obretan oinarritzen gara, baina hori ere sorkuntza da. Egia esan, ez dut fikzioa idazteko beharrik, aski zait besteek egiten dutena irakurtzearekin, lantzearekin eta horrekin gozatzearekin.

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1980ko uztailak 31.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Gasteiz ||| **Lanbidea.** Irakaslea eta literatura kritikaria.

Our Wars liburua al da zure lehen obra?

Bai, liburu bezala bai. Renoko Nevadako Unibertsitatetik jasotako proposamena izan zen: lehenago Mari Jose Olaziregik antologia bat atera zuen bilduma berean, eta editoreari beste bat egiteko garaia zela iruditu zitzaion. Nik gaia proposatu nien: egungo ipuin antologia bat, Gerra Zibilaren eta “euskal gatazka”-ren inguruko ipuinetan oinarrituta.

Antologia osatzeko beste autoreen lanak erabili dituzue: zein da editorearen egitekoa?

Antologia honen atzean lan asko dago: aukeraketa egin, egileei baimena eskatu, itzultzaileekin harremanetan jarri, ipuinen eta itzulpenen alderaketak egin, hitzaurrea idatzi... hor prozesua luzatu egiten da.

Beraz, asko irakurri duzu liburu hau egiteko.

Bai, hori da, besteak beste, proposamena niri egitearen arrazoa. Irakurle porrokatua naiz, aitortzen dut: ezin naiz irakurri gabe bizi. Liburu bat edo gehiago behar ditut inguruan, horiekin bizitza gehiago disfrutatzen dudalako: ez da denbora pasa bakarrik, bizibide ere bada. Ez dut esango dena irakurtzen dudarik, gaur egun ia ezinezkoa baita. Gainera, gutzia irakurtzea ez da ona, jakin egin

behar da liburu batzuk alde bate-
ra uzten: liburu gehiegi daude eta
bitzita laburregia da.

Antologia honetan hamahiru euskal idazleren ipuinak biltzen dituzu, nola egin duzu aukeraketa?

Hautaketarako garaian, "kalitate literario"-aren aldeko apustua egin dugu, eta hori neurtzeko, ba-koitzak bere irizpideak izan ditza-keen arren, nik parametro jakin batzuk lehenesten ditut. Adibidez, ipuin batek zenbat eta irakurketa aberatsagoak izan, xehetasun eta nabardura gehiago eskaini, hobea izango da. Elementu narratiboen lanketa egon dadila ere eskatzen diot ipuin on bati: plano narratiboen uztarketa, denbora jauziak, pertsonaia sendoak erakitzea... Bestalde, irakurleak parte-hartzaile aktiboa izan behar du: hark ere izan dezala interpretaziorako eta jardun sortzailerako bidea. Deserosotasuna ere sentiarazi behar dute, barne-gatazka bat, hortik dator izenburua: *Gure Gerrak*, gerra handiak zein eguneroko gerra txikiak.

Liburuaren zein ipuin duzu gustuko?

Egunaren arabera erantzun desberdina eman dezaket, baina busti egingo naiz: Ramon Saizarbitoriaren *Gudari zaharrenden gerra galdua* bikaina ez, bikainaren hurrengoa iruditzen zait. Bestalde, maila pertsonalean, kontakizun horrek nire inguruan izan ditudan Gerra Zibileko istorioak ulertzera ere eraman nau: familia-ko kontuak, aitonaren atxiloketa agiriak... ordu arte garrantzi gehiegirik eman ez nizkien kontuak. Literaturak horren inguruan hausnartzeko ere balio izan dit, irudipena baitut gazteoi ez digutela historiako zati hori behar bezala transmititu. Bat esan dut, eta beste bat hautatzerakoan zalan-tzan hasten naiz: denak iruditzen zaizkit onak.

Liburuko hitzaurrean gure herriaren historia islatzen duzu, iragana eta oraina: memoria historikoa, histo-



**riaren kontakizuna. Hau ar-
dura handiko lana da, ezta?**

Hitzaurrea egiteko memoria historikoa murgildu baino, memoria kolektibora jotzea hautatu nuen; hau da, hogeita hamar urteko historia luzean denon memoria markatu duten gertakarien ibilbide bat egitea. Liburuaren helburuetako bat irakurleari galderak eginaraztea da. Hori da literaturaren dohainetako bat, galderak eginarazten ditu, ez ditu erantzunak ematen: horretarako bizitza dago. Ez dut uste euskal literaturak historiaren "errelato" bakar sortzen lagundu behar duenik: prisma desberdinak erakutsi behar ditu, alderdi guztiak landu, eta hauek zenbat eta anitzagoak eta askotarikagoak izan, orduan eta hobea.

Ingelese irakurriko dute zure liburua: nola azaldu hemengo gatazka bertatik bizi izan ez dutenei?

Hori izan da zailena, estatubatuar bati, adibidez, gure kontu hauek azaltzea. Atzerritar batek ez du hemengo errealitatearen aurre ezagutza. Hori dela eta, hitzaurre

luze samarra egitea erabaki genuen, Euskal Herriaren ibilbide historikoa kokatu eta ipuinak, hein batean, euren testuinguruan uler daitezten.

Testuak ingelesera itzultzean, nola mantendu da esanahi bera hain testuinguru desberdinak dituzten bi hizkuntzetan?

Ni ez naiz itzultzailea, baina egia da liburu hau dela-eta itzulpen-gintzaren atzealdea, orain arte ikusi ez ditudan gauzak, ezagutu ditudala. Jatorrizko obratik itzulpena beti sortzen dira aldaerak:

“Hori da Literaturaren dohainetako bat, galderak eginarazten ditu, ez ditu erantzunak ematen: horretarako bizitza dago”

itzulpen guztiak dira bertsioak. Itzulpengintza jardun oso serioa da, ariketa oso zaila, ipuinekin denbora asko pasatu dugu itzulpen ahalki eta zehaztenaren bila eta beti egon gara harremanetan itzultzaileekin. Hala ere, zailtasunak, gehienbat, hemengo izen konkretuekin eta izan ditzaketen konnotazioak ulertaraztearekin izan dira.

Pentsatu al duzue antologia euskaraz edo gaztelaniaz argitaratzea?

Ondo bidean, gaztelaniaz aterako da bilduma. Euskaraz, momentuz, argitaletxerik ez da interesatu: berez ipuinak euskaraz badaudenez, liburuak ez du, agian, aparteko ekarpenik egiten. Gainera, euskal gatazka jorratzen duten ipuinen bestelako antologiari ere bada euskaraz: *Haginetako mina* bilduma, hain zuzen. **Badakigu tesiarekin lanean zabiltzala, beste proiekturik buruan?**

Momentuz ez, tesiarekin borrokan nabil. Hala ere, atek ez ditut ixten: ez naiz geldirik egotekoa.✘

Interesak Vs Betebeharrak

G

ipuzkoan hondakinen kudeaketa sistemari buruzko eztabaida oso modu irregularrean ari da garatzen. Bada, ordea, orokorrean kontsumo eredu linealarekin apurtu eta jasangarritasunean oinarrituriko herri ohiturak bultzatzeko pausua eman duen udalerririk. Gurea, tamalez, ez dago tartean.

Eztabaidagai guztietan bezala, oinarri-oinarrira jo beharra dago arazorik benetan ba al dagoen edo ez ikusteko, eta balego, benetan gakoa non dagoen ikusteko, eta solaskidea arrazoiaren bidez desarmatzeko. Kasu honetan, ringaren alde batean, egungo jendarte ereduaren muina, "interesaren defentsa" dago, erraustegia, bosgarren kontenedorea, pasibotasuna, kontsumo mugagabea, norberekoieria; beste aldean, jendarte bezala gure biziraupena bermatzeko ditugun "betebeharrak", eta horren alde hartzeko prest gauden konpromezuak ditugu, hau da, hondakinak gaika sailkatzeko sistemak, ekonomia zirkularra, berrerabiltzea...

'Oroimen laburra dugu', zioen Hertzainak, bai motel! Ahaztu egiten ote gara ba ama lurraren errekurtsioak mugatuak direla? Gu hiltzean gure seme-alabek hemen jarraituko dutela? Eta zer da utziko dioguna? Erraustegiak? Lur hilak? Zaborteziak?

Eta zer dela eta? Guk eguneroko ohiturak aldatzeko gogorik ez dugulako? Zikina delako? Itsusia delako? Tristeia da; ezer jakin ez eta kalean entzundakoaren arabera jardutea, herriaren etorkizuna jokoan den bitartean.

Bestalde, gai honen inguruan azken aldian PNV-k hartu duen postura demokratari ez diot sinesgarritasunik topatzen, ziur bainago herri galdeketa eta sinadura bilketek, herritarrei euren herrietako proiektuen inguruko erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko hitza ematea baino, atez ateko sistema boikoteatzea duela helburu. Tartean dirurik ez balego, hau ere ez nuke ulertuko. Eta zuek?

Baina, dirudienez denok nahi dugu birziklatzea, beraz, badugu bi aldeek konsentsua lortzeko puntu bat. Adostu dezagun, beraz,



||||||||||||| **hodei mendinueta** |||

||| **Tristeia da; ezer jakin ez eta kalean entzundakoaren arabera jardutea, herriaren etorkizuna jokoan denean**

zein den erabiliko den sistema, adibide mordoa daukagu eta Gipuzkoan bertan.

Udalak, hau jakinik, erantzun bat eman behar du lehenbailehen. Nik badut proposamena: Erdi kalean atez ate jasotzen da zaborra orain ere, beraz programa piloto bat jar daiteke; atez atekoa hilabetez Erdi kalean (niri berdin zait nik ere egitea, norbaiti moles-tatzen badio). Eta beste auzo batean, bosgarren ontzia. Kontrol programa egoki batekin bermatu, eta hil bukaeran birziklapen tasa handieneko sistema jarri herri osoan. Denok baikaude birziklatzearen alde, edo ez?

Etorkizun hobe baten alde egiteko gogoia badugu, zenbakiek, arrazoiak, hitz egin dezatela. Horretarako betebeharrak guztionak dira, erantzun beharra dugu. Horrela ikusten ez duenak, bere burua beste guztiaren gainetik jartzen du. Hori ez da inposaketa?

Krisi garaian omen gaude; entzuna dut krisiak aldaketa esan nahi duela, eta hemen dugu elkartasunean, errespetuz eta arduratsu jokatzeko aukera paregabea, gure herri maitea jasotzen ari den jipoiaren aurrean herri gisa, duintasunez eta denon artean zerbait berria eraikitze aukera. Eguneroko gauza txikiak aldatuz mundu hobe bat posible dela uste dutenentzat, eta uste ez dutenentzat, froga bikaina da atez atekoarena.✱



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

Mundu arrox

Arrox, betidanik gehien gustatu izan zaidan kolorea izan da, hunkigarria eta samurtasuna adierazten didana. Mundu 'arrox', pertsona 'arroxek' osatzen dute. Era batera edo bestera, bizitzaren alde gogorra ezagutu duten pertsonak dira, sentsibilitate handikoak. Beraien esaldiak oparitzean, bizitzak, momentu zailenetan irakatsitako guztiak, zentzua hartzen duela dirudi.

Zortez, nire bizitzan, pertsona 'arrox' ugarirekin egin dut topo, beraien artean aingerutxo txiki bat. Oso gaztea izanik, bizitzaren alde ilunak ezagutu ditu eta, hala ere, beti ikasten ari dela dio: "Nago, hemen-dik ere zerbait ikasiko dugu, bizitza ikasketa bat da".

Hurrengoarekin ezkontza batean egin nuen topo: 28 asteko umea galdu berria nuen. Aspaldi ikusi gabe nengoen lagun batekin hitz egin nuen eta halakoetan ohikoa den galdera egin zidan: "Zer moduz zaude?". "Gaizki, dena niri gertatu behar! –erantzun nion–". "Zer pentsatzen duzu zuri bakarrik gertatzen zaizkizula gauza txar guztiak? Begiratu niri! Aurrera egin behar duzu!". Uffa! Txikitan gurasorik gabe geratu zen lagun hari zer kontatu behar nion ba nik? Lotsatu egin nintzen! Biktismoan sartuta nengoen, eta berarekin hitz egin ondoren, beste jarrera bat hartzea lortu nuen. Indarrez betetako jarrera! Aurrera egiteko gogoia sentitu nuen!

Xanjuandegiko festetan ezagutu nuen bikote 'arrox' bat. Zoragarriak biak, goxoak. Oraindik gogoratzen naiz karpan, nire lagun zoro batekin nengoela bikote 'arrox' honek oparitu zidan esaldiaz: "Poz ematen digu, bizitzaz gozatu ahal duzula ikusteaz". Haiek oparitutako esaldiari buelta asko eman nizkion. Banaketa prozesu batean murgilduta nengoen garai hartan, soil-soilik bizitzea nuen helburu. Horrelako esaldia entzuteak, alaitasunez bizitzeko indarra



|||||||nagore illarramendi|||||

|||Bizitzaren alde gogorra ezagutu duten pertsonak dira, sentsibilitate handikoak

eman zidan, nire aurpegian irribarre bat jarri zuten. Momentu hartan pentsatu nuena baino eragin handiagoa izan zuen esaldi hark! Irribarreak oraindik nire aurpegian dirau! Bereak pasatuko zituzten ziurrenik, eta oparitu zidaten esaldiari esker bizirik sentitu nintzen.

Besarkada arrox

Azkenekoa, ikasle ohi bat da. Hark ez zidan hitzeko esaldirik oparitu ez, baina bai eskatu gabe inoiz inork oparitu didan isiltasunezko besarkadarik goxoena, juxtu gehien behar nuenean. Bakarrik ez nengoela sentitu nuen!

Eskerrik asko nire pertsona 'arrox' guztiei, zuek ikasitako guztia besteekin elkarbanatzeagatik. Zuei esker pertsona askok irri egin dezakegu. Zuei guztioi esker 'arrox'k nire kolore gustukoena izaten jarraituko du. Zuei esker nire mundu 'arrox' zoragarria da! Zuek osatzen duzue nire mundu 'arrox'! ✨



“Arazo berrien aurrean ikasteko motibazio bezala ikusten dut enpresako proiektua”

Jon Olaizola (Azkoitia, 20 urte) Telekomunikaizioko Sistemen Ingeniaritza graduako 3. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEAn. Elkarrizketa honetan kontatu digu nola ikusten dituen unibertsitatea eta ikasketak.



Zergatik aukeratu zenuen Telekomunikaizioko Sistemen Ingeniaritza gradua? Eta zergatik MUn?

Betidanik teknologia mundua gustatu izan zait. Egunero erabiltzen ditugun mugikor, telebista, irratia eta informazioaren alorreko gailu eta zerbitzuek nola funtzionatzen duten jakinminak bultzatuta edo, batxilergoa egin ondoren nahiko garbi nuen nire aukera.

Bestalde, unibertsitate bat aukeratzeko orduan, egia esan ez nintzen ate irekietara inora ere joan, baina le-

hengusu eta inguruko jendeari entzundako esperientziak kontuan hartuta, MUn etortzea erabaki nuen. Orain badakit aukera egokia hartu nuela, izan ere, Goi Eskola Politeknikoko metodologia nabarmentzekoa iruditzen zait. Beste unibertsitate batzuekin alderatuz, azterketak ebaluaketa osoan zehar banatzen dira, ebaluaketa bukaerako estuasunak arinduz.

“Nabarmentzekoa iruditzen zait Goi Eskola Politeknikoko metodologia. Alde praktikoari garrantzia handia ematen zaio Mondragon Unibertsitatean”

Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Alde praktikoari garrantzia handia ematen zaio. Sei hileko bakoitzaren zati garrantzitsu bat proiektu baten ikerke-

ta eta gauzapenera bideratzen da, eta honek aurretik ikastorduetan ikasitakoa hobeto barneratzen eta kontzeptu asko ulertzeko aukera ematen du.

Bestalde, ebaluaketan zeharreko lan karga handia da eta honek eskola ordu ez kanpoko denbora dezente eskatzen du.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Datorren ikasturtean, 4. mailan, atzerri ikastera joateko aukera izan arren, enpresa batentzako proiektu batean murgilduta egongo naiz MUn bertan. Lan mundura sartu aurretik, enpresa batek benetan dituen arazoei irtenbidea emateko aukera izateak eta enpresa horrek ikasleengan jartzen duen konfiantzak proiektuan buru-belarri konprometitzera garamatza, beraz, arazo berrien aurrean ikasteko motibazio bezala ikusten dut esperientzia hau.

Etorkizunera begira, master bat egiteko asmoa dut, eta aukera suertatzen bazait, agian atzerrian egitea erabakiko dut. Izan ere, gazteok egun dugun lan egoera penagarria dela eta, norberak bere jakintzak zenbat eta gehiago zabaldu askoz hobe.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Kaleko karteletan euskara nagusi.

Erretiroagaitik ez, baina erretiroagaitik litzateke zuzen eta egoki. Nolanahi ere, kartela euskara hutsean jartzeagaitik, hamar puxtarri saltzailearentzat! 📧 **Uztarria**

**BEHERA.** Kartel ziztrina; gainera, gaztelania hutsean.

Nuarbeko Ibai-Eder urtegian lanak ari dira egiten, eta bidea itxita dagoela adierazten duen oharra ezin euskaraz txukun jarri. Hau marka! 📧 **Uztarria***



Amaia Zumeaga.

ESANA DAGO

III “Haur bakoitzaren gaitasuna identifikatu eta sustatzea dugu xede”

AMAIA AMEZUAGA
GAR Adimen Gaitasun Handia proiektuko kidea

III “Nire ametsa argazkilaritzatik bizitzen jarraitzea da”

AINARA GARCIA
argazkilaria

III “Denboraldia pixka bat irregularra izan da, baina positiboa izan dela esango nuke”

IMANOL ZUBIZARRETA
Azpeitia-Azkoitia
ISBko jokalaria



kutxa

AIZPURU AUTOAK

Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59

Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia

aizpuru@aizpuru.net

Burua eta bihotza



|||||||txetxu urbieta||||

Fama txarra duen negu busti eta gordina atzean utzi eta poeten inspirazioa gorenera eramaten duen udaberria indarrean dugu. Natura biziberritu da, berde-berde koloretsu, lirain eta eder. Gu ere aldatu gara, bista alaitu zaigu eta bizipoza da nagusi. Nahiz eta, natura indartzen duen udaberri iraultzaileak gure gorputzak ahuldu. Alergia dela, astenia dela, polena dela, hain polita den urtaroa tortura bihurtzen da.

Naturak bere betiko bilakaerari zintzo jarraitzen dion bitartean, gure bizitzak eboluziotik gutxi eta inboluziotik asko. Okerra

okertzen artista bihurtu gara. Zoriona ustelatu zen eta ustelkeriak gain hartu digu. Urrea zena kaka da. Gizaki izate hutsa izateagaitik serietetik zetorren hezkuntza eta osasuna, *pack* berezietan saltzen den extra bilakatu da. Poltsikoa bahitu eta nazioanalizatu digute.

Burua eta bihotza, ordea, oraindik gureak dira. Luze egiten ari zaigun negu beltza amaitu eta udaberri argitsurako bidean gure "bueno y barato" burua eta bihotza dira. Luze joko duen zeharkaldirako heldulekuak ere beharko ditugunez, gure Paris Reala izan lite-

ke. Eta Realaren parabolak egoera ulertzeko balio lezake. Aberatsek bezala bizi nahirik kiebra jotzeraino iritsi, desagertzeko zorian izan, xentimorik gabe gelditutakoan betiko oinarri eta sustraira jo; eta ondo eginiko lanarekin eta pazientziarekin kimu berriak sortu dira eta berriro ere, apaltasunez eta etxeko jenero xumearekin, edonori begietara begiratzeko beldurrik ez dugu. Noski ahal dela, baina ez digute emango, eta ematen badigute zerbait gaizki egingo dugu, behar duguna geuk irabazi beharko dugu.*

|||IKUSTEKO|||



▲ ISTRIPUZ ALA NAHITA?

Azken aldian, herriko trafiko-seinaleak erdi etzanda ari dira azaltzen, lurrean ez daudenean. Bietakoren bat: edo autoa gidatzea ahaztu zaigu azpeitiarroi, edo larunbat gauetako indarrek dute eragina. Guztiz eraisterako kendu zuten, behintzat, Perez Arregi plazako seinalea. 🤝🤝 Uztarria*

APIRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Herriko tximiniaren azken keak

CORRUGADOS. 60 urte pasatu dira Azpeitiko bihotzean motorra piztu zutela. Kea etengabe atera izan da bertatik, beltza. Sumendiak, lurrikarak, mendiak... denetarik eragin eta sortu omen ditu motor horrek; baina, badirudi, orain itzaltzen ari dela. Boteprontoan, albiste ona dirudi kutsadura gelditze aldera, baina itxieraren eraginak ez dakit egokiagoak izango ote diren.



Herrikoak nazioartera

AITOR ZUBIZARRETA. Azkenaldian askotan entzun izan ditugu kanpora doazen gazteen istorioak. Gehienetan etorkizun hobea baten bila, baina ezer lotuta izan gabe, ilusio asko zapuztuak izaten dira, ordeak. Zubizarretaren kasua ez da horrelakoa. Nahiko etorkizun oparoa eta distiratsua izango duela dirudi, Portlanden zain. Zorte on eta gogoan izan Azpeitia!



alex silva



Aukera desberdinak

ENOK. Batzuk sortzaile sena barruan dute. Hori frogatzeko aukera eman digu Uztarriako komunitateak. Aldizkari-ko apirileko alean ikusi genuen 'Museoko berriketak' obra eta ondoren sarean gozatzeko aukera izan dugu kolaboratzaile sortzailearen eskutik. Bi baten prezioan.



Gozamenerako gunea

BETHARRAMGO ARETOA. Azpeitiak izan ditu hutsuneak kulturari dagokionez. Azkenaldian eman dira pausoak eta pixkanaka loratzen doa. Izan ere, haziak beti egon dira, lorontziak falta ziren. Gune horietako bat da Betharramgo erakusketa aretoa. Bazen garaia gurean gonorazko bat izateko.*

INKESTA

udaberrian
alergiarik izaten
al duzu?

 Ainitze Agirrezabala

ALBERTO URANGA

erretiratua



"Bai, alerjiak izaten ditut. Hautsarekin ez ezik, hego-haizearekin ere

bai, asko sufritzen dut. Urtean bi sasoi izaten ditut horrela fuerte xamarrak, udaberria eta udazkena. Egundoko doministikuak egiten ditut".

PATXI LIZARRALDE

erretiratua



"Hautsari, polenari eta hezetasunari diot alerjia. Baserritarra naiz

izatez, baina belarretan eta baserrian ez dut ibiltzerik izan. Lagundu bai, baina gutxi, atxiska, doministikuka hasten nintzen, lehertzeraino. Begietatik negar batean, beldurtzeko moduan. Belarrondoaren hautsa da guztietan txarrena. Baserrian baratzan aritze naiz, baina lanbidez mekanikoa izan naiz".

RAMON ETXEBERRIA

erretiratua



"Sekula ez. Eta burukomina, katarroa... horiek denak zer diren ere ez dakit

oraindik. Geroago, denak batera igoal izango ditut baina... Tailerreko hautsari bai, hari banion alerjia. Gineako egurrez betetako kamioiak eskuz husten genituen eta eztarriko mina eragiten zigun hautsak".*

Seme-alaben arazoak

Oraingo honetan, nire nahia da gurasoei azaltea gure seme-alabek arazo bat dutenean, gure eginbeharra ez dela arazo hori konpontzea eta erantzuna bat batean ematea. Gauza bera, gure seme-alaba ez direnekin ere. Adibidez, kalean norbaitekin topo egiten dugunean, eta arazo bat kontatzen dugunean, gure lehenengo inpultsoa erantzuna ematea izaten da. Gehienetan, bestearen nahia, entzutea eta ulertua sentitzea izaten da, ordea.

Gure seme-alabekin, entzute enpatikoa burutzeaz gain, hau da, bestearen lekuan jarri eta honek sentitzen duena, sentitzen ahalegintzeaz gain, arazo horren aurrean, aukera edo soluzio ezberdinak aurkitzen lagundu behar zaie, eta horiek baloratzen, dituzten ondorioen arabera. Aukeren azterketa egin eta gero, aukera dezala berak berarentzat egokiena dena. Agian, gurasoarentzat ez da egokiena izango, baina berak jasan behar ditu bere ondorioak. Askotan gurasoek gure seme-alabek ondo-



amagoia aizpuru

riok jasatea zaila egiten bazaigu ere, oso garrantzitsua da, haurrek edo nerabeek ondorioen bidez bizitzako ikasketa burutzea.

'Alternatiben esplorazioa' izena duen baliabide horren bidez, seme-alabei arazoei modu egokian aurre egiten erakustez gain, arduratsu izaten eta bizitarako ezinbestekoak diren baliabideak ahalbidetzen dizkiegu. Haurren adinera egokituz, oso txikitatik hasi daiteke estrategia hau erabiltzen. Adibidez: Jonek bost urte ditu eta globoa puskatu diotelako negarrez joaten da amarengana. Amak: "zer gertatzen zaizu?". Jonek: "Mikelek globoa puskatu didala". Amak: "Zer egin dezakegu?". Jonek: "Berari ere puskatu". Amak: "Eta horrez gain?". Jonek: "Esan zergatik egin duen hori!". Aukerak aztertu ondoren, ondorioen azterketara bideratzen du amak: "Zer gertatuko da, lehenengoa egiten baduzu?". Umeak, berak erabakitzen du, ondorioen arabera, eta bera da, hartu duen erabakien arduradun!*

galdetzen hasita, herriko zenbat etxe hutsi aplikatu zaie higiezinaren gaineko zerga gehigarria?  Uztarria

Bakarrik hitz egiten

Ikusi gaituzu. Edozein bidetan edo autobusetan. Begirada galduak. Batzuetan, eskuak mugitzen eta ezpainetan otoitz bat. Orduan kezkatu zara herri honetako andre guztiek kalean zehar bakarrik hitz egiten dutelako. Finean pentsatu duzu: Ezin da portarea normala espero, emakumeak dira. Gehienetan eroa femeninoa baita, eta heroiak maskulinoak.

Baina ez dugu bakarrik hitz egiten, gure artean egiten dugu. Elkarrekin egon ezin garenean, batek galdera bat egiten du, beste baten erantzunaren zain. Eta bestearen intuizio magikoari esker, erreplika ematen dio. Ez gara sorginak, ez gaude sorginduak, emakumeen antzerki tailerrekoak gara. Duela hamar urte Alaitz Olaizola tailerra antolatzen hasi zen eta hil honen 31n, 29 andre Sanagustingo eszenatokitik oparituko dizuegu gure azken lana.

Emakumeok, ohikoa denez, seriotasun handiz hartzen dugu lan hau. Berdin da porru-patakak presatzea, pixoihalak aldatzea edo, orain bezala, antzer-



miren alcedo

ki testua buruz ikastea, beti zintzotasunez hartzen dugu ardura. Beraz, guretzako astia lortzea kostatzen zaigunez, trenean edo paseatzen, hizketak birpasatzen ditugu.

Emakumeok ez zaigu bakarrik hitz egitea gustatzen. Ezta erosketak egitea, ezta munduari buruz pentsatzea ere. Hori guztia bakarrik egiteko kapazak bagara ere, gure asmoak eta kezak konpartitzea gustatzen zaigu. Eta ez soilik antzerkizaleei. Jakin-mina eta konpartitzeko nahia daukaten emakume asko daude Azepeitian eta orain badaukagu non: Emakumeen Txokoan, plaza ondoan, estalita-ko parkearen alboan.

Han elkartzen gara antzerkia egiteko, euskara ikasteko, dantzatzeko, osasunaz mintzatzeko, harreman berriak egiteko edo... Han gure aisia betetzen dugu eta, are gehiago, gure burua geuk eta ez besteek kontrolatzen ikasten ari gara.

Inoiz baino sanoagoa daukagu burua.*

ZER DIO?

Gizarte adikzioak

Addictus' latineko hitzak esaten duen bezala, adiktoa eta esklaboa gauza bera da. Hau da, pertsona bat norbaiten edo zerbaiten mendekotasunean egotea. Munduko Osasunaren Erakundeak, kalkulatzen duenez, munduko biztanleria, gero eta gehiagotan murgiltzen ari da adikzio desberdinen agindupean. Beraz, esan dezakegu, gure gizartearen izurritea dela. Oro har, leku eta maila sozial guztietara iristen dena.

Lehenik eta behin, aipatu behar da betidanik ezagutu ditugula era bateko edo besteko dependentzia sozialak. Esaterako, kirol eta joko apustuak hain ezagunak ditugunok Euskal Herrian, drogen edo sustantzia kimikoen mendetasuna, telebista aurrean lotuta ordu mordoia egotea eta lanerako edo kiroleko orduak pila-tzea, besteak beste.

Egun, informazio asko eskuan dugunez, badakigu adikzio mota berriak sortu direla azken urte hauetan, eta gainera, indar handiaz sartu ere. Adibide gisa, orain

ez zaigu harritzen, betidanik ezagunak ditugun filmetako artista famatu askoren sexuarekiko asetu ezinak. Ildo beretik, kontsumismoak bultzaturik, erosketak egiteak sortzen digun zirrara berezi horren loturak ere kontuan hartzekoa da (erositakoaren % 70 konpultsiboki egiten omen da). Baina adituek diotenez, egungo azpikotasunen erregea, Internet eta Teknologi Berrien gehiegizko erabilerak dakarkiguna dela. Bai, lau pertsonatikat bat teknologi berrieekin kateatuta dago. Datu hau, lautik bat, izugarria eta kezkarria da aldi berean.

Arazo hau, nerabeen munduan ematen da batik bat. Onartu beharra dago, duela gutxi, Teknologi Berrien aurrerapausoa erraldoiak baliabide ezin hobek eskaintzen dizkietela gazteei. Bai asialdirako edota solasaldirako, bai sorkuntzarako. Hain zuzen ere, ikasketa lanak egiteko, lagunekin harremanetan jartzeko, musika entzuteko, filmak ikusteko, sentimenduak adieraz-

teko, argazkiak egin ala partekatzeko besteekin. Funtsean milaka gauza burutzeko erabiltzen dute ordenagailua, sakeleko telefonoa, tablet-a, kontsolak eta komunikazioa Internet bidez errazten duten hainbat gailu. Jokabide hauek ez dira, berez kaltegarriak, baina, behin eta berriz errepikatzen badira, orduz ordu, konpultsiboki; beraien esklabu bihurtzen gara.

Halaber, gizarteko mendetasunen ondorioei dagokienez zera esan dezakegu; alde batetik, psikikoak daudela, hots, pertsonaren burua hondatzen dutenak eta beste aldetik, fisikoak, gorputza gutxituta edo erdi gaixo uzten dutenak. Esaterako, ezaguna da alkoholak gibela jaten duela, baina, droga kimikoen garunean sarraskia egiten dute. Era berean, Teknologi Berrien menpekotasunak bere azarna uzten du. Zorionez, egungo gizarteak badu ondorio hauei aurre egiteko baliabiderik: taillerak, zentru bereziak eta halakoak, bertan banakako jokabide-te-

rapiak, psikoterapiak eta halakoak lantzen dituztenak...

Era berean, adikziodun pertsonaren ingurukoek sufrizten dute hauen dependentzia. Berdin da zer motatakoa den jatorria: lanarekikoa bada, sexu harremanekotan bada, edota jokoarekin itxututa badago (ludopata)... Argi dago, bai familikoek, bai lagunek eta albokoek, adiktoaren hutsuneak, egonezina, eta gabeziak pairatzen dituztela.

Amaitzeko esan nahi nuke, norbanakook garela adikzioaren baten aurrean arduradunak. Ikasi dezagun, neurri batean, gauza guztiak egokiak direla eta gehiegikeriak, beti izan diren bezala, kaltea eragiten digutela. Laburki esanda, amildegira bultzatzen gaituztela. Eta gure munduarentzat aurrerapausoa dena –Internet, TBak– ez dezagun atzerapauso edo mendekotasun bihurtu.*

luis gurrutxaga
(herritar bat)

Lau pertsonatikat bat teknologia berrieekin kateatuta dago. Datu kezkarria da

Munduarentzat aurrerapausoa dena ez dezagun bihurtu atzerapauso edo mendekotasun



Loreak (II)

Ostirala zen, edo osteguna, eta ez zegoen futbolik aste hartan. Elkartean geunden afari-pasara egiten, eta ez dakit nola hasi ginen, baina bat-batean liburuez ari ginen hizketan, literaturaz, eta noski, liburuen bitartez munduaz, politikaz, ekonomiaz, sexuaz jardun ginen. Bizitzaz, alegia.

Ez dakit nor hasi zen, baina Batek Joseph Conrad aitatu zuen, 'Ilunbeen bihotzean' nobelak Afrikari buruz egiten digun erretratua nolakoa den. Eta ondokoak Ford Coppolaz zinemara eramanezuela esan zuen: 'Apocalypse now' filma beste garai batean kokatua

egonagatik nobela horretan oinarrituta dagoela.

Atzetik etorri zen beste liburu batzuen aita-rena ere: Harkaitz Canoren 'Twist' puskaka eta denbora luzez irakurri zuen Urliak, eta berriro irakurtzeko asmoa agertu zuen. Guztiei gomendatu zien. Sandiak Sarrionandiaren 'Moroak gara behelaino artean' aitatu zuen. Gutxi irakurtzen omen du azkenaldian, baina liburu horrekin ari da borrokan. Berendiak Ramon Saizarbitoriaren 'Martutene' dauka zain, hasiera batean liburukote horrek ematen duen pereza gainditu eta laster batean

■■■■■■■■■■**eñaut frantzesena**■■■■■■■■■■

hasiko dela esan zuen.

Beste hainbat liburu ere aitatu genituen: Lucio Urtubiaren liburua irakurri behar dugula esan zuen G-k. Kunta Kinte-ren 'Sustraiak' ari omen da irakurtzen bera. Alaa Al Aswani-ren 'Jakobian eraikina' zuen esku artean J-k. Mahaiaren beste puntan, Nuria Roca-ren liburu bati buruz ari ziren batzuk, mundiala dela, irakurri beharko genukeela.

Eta momentu batez, mundua konpondu genuen beste behin. Batzuetan, futbolariak zapaltzen ez dituztenean, loreak ateratzen dira zelaietan.✳




'La conjura de los necios'

Hemen nauze berriro liburu bat aurkezten. Azkena irakurri ditudan liburuetatik hauxe gomendatuko nuke *La conjura de los necios*. Liburua euskarara itzulita ote dagoen aritu naiz bila, baina tamalez oraindik ez dute euskaratu. Amerikako Estatu Batuetako idazle batena da, beraz jatorriz ingelesez idatzitakoa.

Idazlea John Kennedy Toole da. Bere bizi motxean bi liburu idatzi zituen: bata 16 urte bakarrik zituela *La biblia de Neón* eta bestea 31rekin *La conjura de los necios*. Azken horrengatik, besteen artean, Pulitzer sari famatua lortu zuen, nahiz eta berak jaso ez. Liburua idatzi zuenean batzueganaz zein besteenganaz joan zen publikatuko zuen bakarren bat aurkitu nahian. Aurkitzen ez zuenez, era bat lur jota bilakatu eta bere

■■■■■■■■■■**KRITIKA**■■■■■■■■■■
'La conjura de los necios' nobela



Autorea. John Kennedy Toole.

Argitaletxea. Anagrama, 1992.

Orrialde kopurua. 392.

Salneurria. 10 €.

burua hil zuen 32 urte zituela. Bere amaren saiakeragatik argitaratu zen azkenean liburua, eta sari bat baino gehiagoren jabe izan da harrezkero.

Liburua 1980an kokatua dago. Nahiz eta esan litekeen liburu komikoa dela, oso kritikoa da munduarekin eta nola muntatua dagoenarekin. Pertsonai nagusia Ignatius Reilly da. Benetan ondo lortutako pertsonaia da eta nobela guztiari lotura bikaina ematen diona. Bere bidez nobela honek irakurlea pasarazten du barre egitetik nahigabera. Pertsonai nagusia New Orleansen bere amaren etxean bizi den gazte pintoresko bat da. Maite ez duen herri horretan lan bila dabil bere amak edukitako istripu batek sortutako gastu handiak ordaindu ahal izateko. Bide horretan era guztietan

■■■■■■■■■■**luix juaristi**■■■■■■■■■■

ko pertsonai arraro eta interesgarriekin harremanak edukitzen ditu. Hainbat istorio sortzen zaizkio Ignatiuseri eta bizitza tokatu zaion garaiaren gaineko kritika zorrotza egiten du. Ez du inor behatza begian sartu gabe bakean uzten. Nobela aurrera doan heinean, kristoren kaka nahastea sortzen joaten da, bukaeran dena lehertuaz.

Nobelaren lehen erdia hobe da bigarrena baino, eta bukaeran jarraipena edo bigarren zati bat beharko lukeen sentsazioa geratu zait.

Gomendagarria da liburu hau, nahiz eta badakidan batere gustatuko ez zaien irakurleak egongo direla. Hori bai, irakurtzea erabakitzen duzuenoi esango nizuete hasieran pazientzia pixka bat izatea, traman sartu arte.



Azpeiti
AUTOESKOLA

Loiolako Ignazio Etorbidea, 29
Tel.943 08 31 43 • 20730 Azpeitia
info@azpeitiautoeskola.com

www.azpeitiautoeskola.com

 **domusa**



▼ LOIOLAKO SAN INAZIO.

Marcial Agirre eskultoreak Erroman zizelkatu zuen irudia eta 1882an, elizaren eskalinataren behealdean jarri zuten. Geroago, eskaileren erdiko mesetara lekualdatu zuten. 1943an, Loiola eta Azpeitia lotzen zituen etorbidea eraiki zutenean, eskultura aurrera ekarri zuten.

Oroimen-irudiak

Herriko hainbat txoko, kale, mendi eta biribilgunetan dauden eskulturen argazkiekin bilduma osatu du Uztarriak. 📷📍 Ainitze Agirrezabala



▲ **DIEGO GARCIA, AZKOITIAKORRIKALARI HANDIA.**

Diego Garcia lasterkalari azkoitiarra hil zen Loiolan, Azkoitia-Azpeitia maratoi erdirako entrenatzen ari zela, bihotzekoak jota, 2001eko martxoaren 31n. Xebas Larrañaga eskultoreak egin zuen korrikalariaren omenezko irudia. Azkoitiar korrikalari handia hil zeneko lehenengo urteurrenean jarri zuten eskultura, heriotzak harrapatu zuen lekuan. Azpeitian bizi zen Garcia.

► **AMATASUNA.**

'Amatasuna'-ren irudia jarri zuten Loiolabideko Auzarazako biribilgunean, 2005eko urtearen hasieran. Egilea, Xebas Larrañaga eskultore azkoitiarra, Diego Garciaarena egin zuen bera.





▲ OLAZKO AMAREN IRUDIA.

Loiola eta Azpeitia lotzen zituen etorbidea inauguratzean, 1943an, jarri zituzten Olazko birjinaren irudia eta oroitarria.



▲ MENDEURRENEKO ESKULTURA.

Zezen-plazaren ehun urteak ospatzeko, besteak beste, Antonio Oteizak egindako eskultura inauguratu zuten, 2003ko ekainaren 8an.

▶ JOSE ARTETXE IDAZLEAREN BUSTOA.

Bere izena daraman kalean, anbulatorio aurrean, dago Jose Artetxe (1906-1971) idazlearen harrizko bustoa. Aurretik, Zelai Luzen egon zen idazlearen monolitoa, baina 1996ko ekainaren 24 goizean Urola ibaian agertu zen.



▲ 1.200 KILOKO ALTZAIRUA.

Loiolako San Inazioren oroimenez, Eduardo Txillidak egindako 'Enparantza II' eskultura inauguratu zuten, 2000ko apirilaren 10ean. Basilikaren ondoan dago.





▲ SOKAMUTURRA.

Jabier Iraetak sokamuturraren omenez egindako eskultura 2002an inauguratu zuten, pilotalekuan, jai karnabalean.



▲ 'TAKOLO' MENDIZALEA.

Takolo baserriaren ondoan Joxe Urbieta 'Takolo' mendizalearen irudia duen eskultura jarri eta lizarra landatu zuten, 2001eko maiatzaren 26an, Diego Cruz azkoitiar artistak eginda. 2000. urteko abuztuan hil zen etxean, bihotzekoak emanda.

▼ LANGILEEN OMENEZ.

Industria eta langileak omendu nahi dituen Antonio Oteizaren 'Forjando' eskultura inauguratu zuten Landetako biribilgunean, 2002ko abenduan. Eskultura Oteizak Azpeitian duen bigarrena da, bestea, 'San Inazio Arantzazun' Loiolako Santutegiaren atzekaldean dago. Aipatutako irudiez gain, badira beste hainbat, hala nola: Iturritxikikoa, alberkakoa, Olazko amabirjinaren irudia...



E

negarrenez, beste estutu bat eman nahi dio Espainiako Gobernuak hezkuntza arautzen duen legediari. Boterera iritsi ahala, irakaskuntza eredua nahieran aldatzea ohikoa da aldiko gobernuarentzat. Agintean daudenen kolorearen arabera hezkuntza sistema aldatzeak ikastetxeen lana baldintzatzen du.

Azpeitiko ikastetxeetako arduradunei entzunda, Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroak aurkeztutako erreforma aurreproiektua, LOMCE deritzona, deskalabru pedagogikoa dela esatea ez litzateke urrunegi joatea. 2011ko abenduan eman zuen jakitera PPren gobernuak aldaketa sakonak egingo zituela hezkuntzan, eta iragarritako asmoek hautsak harrotu eta zalaparta eragin zuten. Hasierako zirriborroan zeuden puntu batzuetan amore eman du Wertek; besteak beste, Lanbide Heziketara bideratutako ikasleak DBHko titulazio gabe utzi nahi zituzten edota Espai-



||| DATUA |||

7

.hezkuntza erreforma. Jose Ignacio Wert Hezkuntza ministroak aurkeztutako erreforma proposamena frankismoaz geroztik Espainian egindako zazpigarrena da. Aurrekoa, 2006an egin zuen PSOE alderdiaren gobernuak.

Wert Hezkuntza ministroak aurkeztutako LOMCE erreforma proiektuak "eduki homogeen eta z

Hautsak harrotuta

Herriko ikastetxeak kezkatuta eta asaldatuta ditu Wert erreformak, eta hezkuntzan urak nahastuta dabilta, azken boladan. 🖋️📷 Ainitze Agirrezabala



entralistetan oinarritutako curriculum espainiarra” ezarri nahi du.

niako Konstituzioa goratzea helburu zuen ikasgaia eman nahi zuten. Negoziazioak negoziazio, ministroak iragarri du aurreproiektuak ez duela aldaketa gehiago jasango eta Diputatuen Kongresura bere horretan eramango dutela. Madrildo Gobernuak ez du argi utzi hurrengo ikasturterako ala 2014-2015erako martxan nahi duen eredu berria.

Erreformaren helburua, “ikasleak espainiarrean” dela adierazi du ministroak. Eduki homogeen eta zentralistetan oinarritutako curriculum espainiarra ezarri nahi du erreformak; euskara “espezialitateko” ikasgaitzat hartu eta gaztelania indartu; ikasle ‘onak’ eta ‘txarrak’ bereiztu eta ‘talenturik gabeak’ alboratu. Kritikoek, aurreproiektuaren kontra daukenez –eta ez dira gutxi izan aurkako irizkiak–, ezagutza memoristikoa eta akademi-

koa hobetsi eta gaitasunak alboratzen dituen eredu ekonomizista izatea egotzi diote. Murriketaz hornitutako neurria.

PPren gehiengo absolutuak ahalbidetuta, Espainiako Estatuan ezarri nahi duten hezkuntza sistemak kezkatuta eta asaldatuta ditu Euskal Herrian arloko eragile gehienak eta Azpeitiko ikastetxeak ere bai. LOMCE legearen aurrean dituzten kezkak jakin eta zernola eragingo dien jakite aldera, Azpeitiko Ikastola Ikasberri Kooperatibako Aitor Unanuekin, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai-ko Begoña Sarasuarekin, Iraurgi Ikastetxe-ko Maje Agirrerekin eta Urola Ikastola BHIko Alberto Izagirrerekin hitz egin du Uztarriak.

“Administrazio publikoaren aldetik datoren eta atzetik bultzada ideologikoa eta politikoa dakarren beste doktrinamendu saiake-

||| LOMCE ERREFORMA |||||

IKASGAI ARDATZAK INDARTU.

Gaztelania sustatu. Egungo hezkuntzan oinarritutako gaitasunak ezinbestekotzat jotzen dira, baina legeak dioenez, horiek alboratu eta eduki kontzeptualen ezagutza izango da nagusi. Finean, hezkuntza merkantilizatu eta “baliagarri” diren ikasgai ardatzak –gaztelania, ingelesa, matematika, biologia, fisika, historia– indartuko ditu. Oinarritutako ikasgaien curriculum bere gain hartuko du Wertek, eta horien edukia zehaztuko du. Euskara “espezialitateko” ikasgai jo, eta gaztelania indartu nahi du PPK, euskararekin “orekan” egon behar duela adieraziz.

BEREIZKETA IKASLEEN ARTEAN.

Baztertzalea. Ikasleek 14 urterekin aukeratu beharko dute zein bide hartu. Guztiek talentu bera ez dutela eta, errendimendu akademiko baxua dutenak Lanbide Heziketara zuzendu nahi ditu, eta gainerakoak unibertsitateara. Unibertsitatean ikasle gehiegi dagoela eta bahea zorroztu nahi dute; tartean, bahe ekonomikoa. Eskola porrotari aurre egitea omen da neurriaren helburua, baina eskola-uzte goiztiarra %14,7koa baino ez da Hego Euskal Herrian. Ikasle ‘on’ eta ‘txarren’ arteko bereizketa areagotzeko balioko du neurriak.

KONTROLERAKO 4 AZTERKETA.

Ebaluazio goiztiarrak. Legeak aditza ematen duenagatik, administrazioak ezarritako froga estandar bana egin beharko dute ikasleek 9, 12, 15 eta 18 urterekin. Batxilergoan selektibitatearekin gertatzen dena aintzat hartuta, ikastetxeen ibilbidea ebaluazio goiztiar horiek gainditzera egongo da zuzenduta. Urte horietan landu beharreko gaitasun orokorrak jasotzen dituen curriculumak apenas izango du lekurik. Areago, emaitzekin ikastetxeen rankinga plazaratzeko asmoa du Gobernuak.

ZUZENDARIA, MADRILDIK.

Autonomia kamustu. Ikastetxeari autonomia emango zaiola dio LOMCEK, baina autonomia hori zuzendariaren menara egongo da. Madrildik hautatuko dute zuzendaria, eta eskola-komunitatearen parte-hartzea hutsaren hurrengo izango da, kontsulta-mailara zokoratuz. Izaera kooperatiboa edo pribatua dutenen kasuan, administrazio publikoaren ondoan autonomiaz jokatzeko hainbat aukera dute. ▶



III “Kooperatiba izaera dugu, eta autonomiaz jokatzeko aukera dugu administrazio publikoaren aurrean”

III “Gure errealitatera egokitzen den hezkuntza sistema propioa behar dugu”

AITOR UNANUE

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop.

ra bat bezala” ulertzen du Unanuek Wertek aurreproiektua. Guztiak bat datoz esatean, aurreproiektua ez dela egokitzen gure errealitatera. Curriculum arloan “hezkuntza zentralista eta homogenea”, nazioarteko erakunde guztiek bultzatzen duten “hezkuntza politiken aurkakoa” dela gaineratu du Unanue lehendakariak. Izagirreren eta Sarasuaren esanetan, “lortu nahi dituen helburuak, Europar Batasunaren xedeak, dagoeneko gure artean betetzen ari dira. Aurreproiektua inbadi-tzailea da eta soberan dago; are gehiago Euskal Herriko testuinguruan”. Horren aurrean, Unanuek dio “benetako hobekuntza bultzatzen duen legedia” behar dela. “Hezkuntza sistema eta lege propioak behar ditugu, gure errealitatera egokitzen den ereduak”.

Nolako izaera, halako eragina

Ikastetxe bakoitzaren izaeraren arabera, hezkuntza erreformak desberdin eragingo die

batzuei eta besteei. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai eta Urola Ikastola Euskal Eskola Publikoko sarean kokatzen dira eta, beraz, antolamendu eta jarduneko kudeaketa guztietan eragiten die. Urola Ikastolako zuzendari Izagirreren esanetan, “aurreproiektua onartu eta indarrean jarriko balitz, guztiz aldatzen dira etapen egiturak, ebaluazio nahiz promozio irizpideak, aniztasunaren traktuerak, etapen arteko trazagarritasuna eta abar luze bat. Legean oinarritako helburu bat nabari da: estatu espainolean hezkuntza zentralista eta homogenea garatzea, inongo aniztasun sozial, kultural edo historikoak kontuan hartu gabe. Euskal Herriari dagokionez, euskararen koofizialtasuna soilik hartzen du kontuan curriculum gauzatzekoan, baina hori ere ikasle-gurasoon esku izanik, ez murgilketa prozesu baten ondorio. Azken 40 urteetan, zapi hezkuntza lege izan ditugu, eta orain zortzigarrenaren mehatxua dugu gainen. Orain arte, ezin izan dugu euskal curriculum propioa gauzatu, baina EAEn arauen autonomia nahiz zirrikitu guztiak baliatuz, goi mailako hezkuntza gaitasunak garatu ditugu arlo guztietan. Halere, kezkatzekoa da, gobernu aldaketa bakoitzarekin, hezkuntza sistemaren ildoak aldatu nahi izatea, horrek ikasleengan suposatzen duenarekin. Orain arte, gizartearen laguntzaz, halako ‘blindaje’ bat egin izan da aldaketa bortitz eta zentzugabedunek eragin murriztena izan dezaten ahalbidetzeko”.

LOMCE erreformak ekarriko lukeenez, Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraiko Sarasuak dio, Eusko Jaurlaritzak curriculumean dituen eskumenak murriztuko direla eta Madrilek enborrezko irakasgaien edukia eta ordutegiak zehaztuko dituela. “Hezkuntza sistema uniforme eta kontrolatua bultzatzen du LOMCEk. Era berean, eskola elkarteak kideek osatzen duten Ordezkaritza Organo Gorenaren eginkizunak mugatuko lituzke eta kontsulta organo baino ez litzateke izango, eta hezkuntza komunitatearen parte hartzeko aukerak murriztuko lirateke. Hizkuntzaren normalizazioan atzera egingo genuke eta egungo gizartearen dugun aniztasunari eran-

tzuteko oztopoak izango genituzke. Izan ere, D ereduak eta Hizkuntza Errefortzurako irakaslearen figura eta arlo horretako programak arriskuan egongo lirateke. Euskara gure ama hizkuntza da eta hizkuntza gutxitua izanik, lehenetsia izan behar luke irakaste jardueretan; gure ardatza izan behar luke. Baina LOMCEk bigarren mailako hizkuntza bihurtzen du. Gure helburua euskaldun elea nitzak heztea da eta lege honek arriskuan jartzen ditu helburu hori eta euskararen normalizazioa. Hezkuntza Sailak Euskal Eskola Publikoaren erreferentziatza Euskal Herriko curriculum hartu beharko luke kontutan”.

Euskal Herriko Ikastolak Europar Koop. Elkartean dago Azpeitiko Ikastola Ikasberri; jabetzaz guraso eta irakasle-langileek osatzen duten kooperatibarena da ikastola. Unanuek esanetan, horrek autonomiaz jokatzeko hainbat aukera ematen dizkie administrazio



III “Euskal Eskola Publikoaren erreferentziatza Euskal Herriko curriculum hartu beharko luke Hezkuntzak”

III “Hezkuntza sistema uniforme eta kontrolatua bultzatzen du LOMCEk”

BEGOÑA SARASUA

Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegarai

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak
943 15 16 40
ALBARTARI KLINIKA

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com



||| “Hezkuntza proiektu propioak osatzeko izan dugun autonomia moztea da LOMCEren helburua”

||| “Hezkuntza sistemak oinarrizko akordio politiko eta sozial bat beharko luke”

MAJE AGIRRE

Iraurgi Ikastetxea

publikoaren aurrean. Besteak beste, kooperatibaren kontseiluak izendatzen du ikastolako zuzendaria. “Euskal Herriko ehundik gora ikastolok, Sehaskakoak eta Nafarroakoak barne, europar kooperatiba bat osatzen dugu. Bertan hezkuntza eredu propio bat –materiala eta hezkuntza proiektuak– lantzen dugu eta euskal curriculumaren ardatzean ari gara lanean. Hein batean, ikastolak administrazioak inposatzen zituen hezkuntza ereduen aurrean herriak sortutako aukera izan baikara. Eta hori berme handia da gure seme-alabentzat. Garbi dugu gure seme-ala-

ben hezkuntza garrantzitsuegia dela kolorearen arabera mugitzen den gobernuaren esku uzteko. Historikoki ikastolatan esperientzia handia dugu antzeko legeen inguruan gure hezkuntza proiektuarekin lan egiten”. Era berean, lege aurreproiektu honetan egiten den sailkapenaren ondorioz, hizkuntza koofizialak –euskara, kasu–, 3. mailakoak direla adierazi du. “Ez dira enbor atalekoak, eta hizkuntz koofizialak ez dira ebaluatzen DBH eta Batxilergoko azken frogetan. Euskara lehenetsunezko hizkuntza dugu ikastolok, sorreratik gure izanaren arrazoi funtsezkoenetako bat da”.

Kristau Eskolak sarearen baitan dago Iraurgi Ikastetxea, eta hango zuzendari Agirrek dioenez, “oso kezkatuta” daude aurreproiektuarekin. “LOMCEren helburu nagusienetako bat da orain arte erkidegoek eta ikastetxeek hezkuntza proiektu propioak osatzeko izan dugun autonomia moztea”. Planteatzen den lege-erreformak, “Euskal Curriculum ez du aintzat hartzen; Madrilgo gobernuak zehaztutako edukiei emango die garrantzi nagusia eta ikaslearen garapen orokorrean oso garrantzitsuak diren alderdi asko alde batera utzi nahi ditu”. Bestalde, “neurri erabat okerra” iruditzen zaie ikastetxeen ibilbidean, kontrolerako lau azterketa izatea, gisa horretan, “ebaluazioa gobernuaren kompetentzia eksklusiboa” izango delako. “Azken urteotan, Howard Gardenerren adimen anitzten teoria lantzeko apustua egin dugu eta programa hori bertan behera geratzeko arriskuan legoke”. Euskarari dagokionean ere, LOMCEk hizkuntza eskubidea urratzen duela dio. “Badirudi, hizkuntza koofizialak ikaskuntzarako oinarrizko hizkuntza bezala erabiltzea galarazi eta ez direla enborreko ikasgaitzat joko. LOMCEk euskara hirugarren mailara pasatu nahi du, argi eta garbi”.

Agirreraren esanetan, “hezkuntza eragileekin adostuta, hezkuntza sistemak oinarrizko akordio politiko eta sozial bat beharko luke, eta horiek ez lirateke aldatu behar gobernu aldatzen den bakoitzean”.

Horren aurrean, zer?

Wertek hezkuntza politika gaitzetsi, eta herriko ikastetxeek garbi dute zer nahi duten: “Euskal Herriko errealtatera egokitzen den hezkuntza sistema izatea”. Ea ba, luze baino lehen, urek bide hori hartzen duten.*



||| “Kezkatzekoa da, gobernu aldaketa bakoitzarekin, hezkuntza sistemaren ildoak aldatu nahi izatea”

||| “Curriculumak euskararen koofizialtasuna soilik hartzen du kontutan”

ALBERTO IZAGIRRE

Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitia BHI

Merke eta natural

Auzokonpostaren bidez hasi dira hainbat familia Urrestillan orain arte bereizita bota ezin zituzten hondakin organikoei irtenbidea ematen. 📝📷 M. Oiarzabal

Etxean sortzen diren hondakin organikoak –janari hondarrak, gordinak ala sukaldatuak– horretarako ontzian bildu, ontzia hartu eta konpostagailura eramanean. Han, bota, hondakinak zabaldu, lehendik daudenekin nahastu eta lehorkinarekin estali. Horrela dabilta Urrestillako hainbat etxetan urte hasieratik, auzokonposta abian jarri zutenetik.

Hasieran 27 familia batu zitzaizkion ekimenari. Hiru gunetan banatuta –Errota, Zerralde eta Kalebarrena kaleetan–, lau konpostagailu jarri zituen Urola Erdiko Mankomunitateak; auzokonposta, izan ere, mankomunitatek bailarako herri guztietan bultzatzen ari diren ekimena da. Hiru hilabeteren ondoren, apirilean beste sei familia gehitu zaizkio auzokonpostari Urrestillan eta bi konpostagailu gehiago jarri dituzte: bi daude Errotako gunean, bat Zerraldekoan eta hiru Kalebarrenean. Guztira 33 familia ari dira konposta egiten; 97 lagunek sortutako organikoa ari dira horretara bideratzen.

Ondo eta eroso

Karmen Arozena, Miren Garin eta Adela Hernandez auzokonpostean ari direnetako hiru herritar dira eta, momentuz, gustura daude esperientziarekin. “Sistema oso eroso” iruditzen zaio Arozenari. “Ontzia betetzen duzunean, nahi duzun egunean, nahi duzun orduan, joan zaitezke”.



Ezkerretik eskubira, Miren Garin, Karmen Arozena eta Adela Hernandez, auzokonpostean parte hartzen ari di

Urrestillan zaborra bereiztuta botatzeko edukiontzi guztiak dituzte, hondakin organikoena izan ezik. 2008an jarri zuten bosgarren edukiontzia, marroia, Azpeitian, baina herrigunean bakarrik. Arozenak eta Hernandezek bere garaian Urrestillan ere jartzeko eskatu zutela ekarri dute gogora. "Oso garestia zela eta, zegoen eskariaren arabera, ez zela posible", izan zen jasotako erantzuna. "Nahi banuen ikastaroa egin eta giltza emango zidatela esan zidaten –dio Hernandezek–, baina hondakinak Azpeitira eramatekotan". Miren Garin, berriz, Azpeitian bizi zenean organikoa bereizten ohi zuten zegoen "eta hona etorri nintzenez, egia esan, faltan botatzen nuen".

Orain, auzokonpostarekin badute hondakin organikoak ere birziklatzeko aukera. Eta, aukerarekin, Garinek dioen moduan "asko pentsatu gabe" eman zuten izena hirurek. "Hainbeste zabor sortzen dugunez, birziklatzeko ideia ona iruditu zitzaidan, zaborraren kudeaketa beste era batera egiteko", aipatu du Hernandezek. Gainerako zaborra gaika

bereizten ohi zuten daudela nabarmendu dute hirurek. "Birziklatzeko ontziak jarri ahala erabili izan ditugu. Urtetan ari gara birziklatzen. Orduan, organikoarekin ere aukera badaukagu, dudarik ez ba", laburbildu du Arozenak.

Nobedade ororen aurreko zalantzak eta kezak gaintuta, uste zutena baino errazago moldatzen ari direla aitortzen dute auzokonposteko kideek. "Egia esan, ez zait bate-re zaila egin, ezta nekosoia ere", azaldu du Hernandezek. "Lehen bilerara etorri eta azalpenak eman zizkigutenean, 'ene, asmatuko ote dugu egiten?', pentsatu nuen. Baina gero, konturatzen zara ez dela hainbestera-

ko", dio Garinek. Arozena ere bat dator eta, harago joanda, "askotan kontzeptu okerrak" ditugula iritzi dio. "Lan bat gehiago, eta zer usain, zer txerrikeri etxean... Jendeak uste hori izan dezake batzuetan, ez dutelako probatu, ez dakitelako".

Azpeitian, laster

Erabiltzaileak ez daude bakarrik auzokonpostaren prozesuan. Urola Erdiko Mankomunitateak teknikari bat dauka, konpostagailuak gainbegiratu eta prozesuaren jarraipena egiteko. Ander Lasa azpeitiarra da lan horretan ari dena. Urrestillako esperientzia "oro har positiboa" izaten ari dela deritzo. "Jendea kontzientziatuta dagoela ikusten da. Kontuan hartu behar baita, hau boluntarioa dela. Hasi erabiltzen diren akatsak eta gertatzen diren gorabeherak umorearekin hartzen dituzte jendeak. Motibatuta ikusten dituzte". Aurreneko konposta "udazken alderako" ateratzen hasteko moduan izango direla uste du. Ongarri hori erabiltzeko "lehentasuna egin dutenek" izango dute. Erabiltzaileek behar ez badute, berriz, inguruko jendeari eskainiko zaio. "Urrestillan, adibidez, dagoeneko lehenengo interesatuak azaldu zaizkit".

Aizarnazabalen hasi ziren aurrena auzokonpostarekin, iazko udan, "eta han ikusi dugu datuak oso onak izan direla. Auzokonpostarekin, abuztu-irailean hasita, iazko birziklatze-tasa %50era igo dute. Zestoan, Urrestillan, Azkoitian... ere ari dira dagoeneko, eta ea lehenbailehen zabaltzen joaten garen", dio Leire Etxanizek, Udaleko zinegotzi eta Mankomunitatearen lehendakariak. Nuarben, esaterako, apiril bukaeran egin zuten aurreneko bilera. Azpeitiko herrigunean atzeratzen ari da ekimena, baina ehundik gora familiak izena emana dute eta laster hasteko moduan izatea espero du Etxanizek. "Azpiegiturak martxan jartzeko behar dugun materiala Diputaziotik banatzen digute, eta asko ari dira atzeratzen", aitortzen du.

Edukiontzi marroia eta auzokonposta nola ezkontzen diren galdetuta, "faktore ekonomiko" eta "hondakinak modu naturalagoan tratatzeko aukera" aipatu ditu Etxanizek. Eta datu bat eman du: "Azpeitian giltza 1.220 familiak badaukate, jaso dugun hondakin kopuruak dio horietatik erdiak bakarrik erabiltzen duela edukiontzia". Auzokonpostaren alde egiteko beste arrazoi bat ikusten dute hor arduradun politikoei. Hori frogatzeko, orain arte edukiontzi marroian izena emanda zeudenek zerga-ordainketan zuten hobaria, konposta egiten dutenei jarri diete.*

||| "Ontzia betetzen duzunean, nahi duzun egunean, nahi duzun orduan joan zaitezke"

KARMEN AROZENA

||| DATUAK |||||

%40 organikoa. Etxeetan sortu eta zabor bilketan jasotzen diren hondakin artean tona gehien organikoak osatzen ditu.

2 herrigunetan bakarrik dago bosgarren edukiontzia Urola Erdian: Azpeitian eta Azkoitian. Azpeitian 1.220 familiak dute giltza.

||| "Azpeititik hona etorri nintzenez, egia esan, faltan botatzen nuen organikoa bereiztea"

MIREN GARIN

||| "Hainbeste zabor sortzen dugunez, birziklatzeko ideia ona iruditu zitzaidan"

ADELA HERNANDEZ



iren hiru herritar.




||||| **aiora olaizola** |||||

||||| **ihintza elustondc** |||||



||||| **amets cañizares** |||||



Aurten bai!

Aiora. Neskak, aurten bai!

Ihintza. Aurten bai zer?

Amets. Gazte asteko parodian irten hunala?

Aiora. mm... ez!

Ihintza. Futbiton apuntatu haizela?

Aiora. Ez dun hori ere...

Amets. 'Two second' kanpina desmontatzen ikasi dunala aste santutan?

Aiora. Ez dinat kanpina montatzeko aukerarik izan, beraz desmontatzeko ere ez.

Ihintza. Jakin ezan zer den! Ni aste santutan Santiago Bidea egitera joan nindunan.

Amets. Ez dun egia izango!

Aiora. Hori dun sasoi neska!

Ihintza. Beno aber, Debatik Zumairainoko tarte hori egin dinagu, baina badun zerbait!

Amets. Bai zerbait badun...

Aiora. Asko ez izan arren!

Ihintza. Hondartzara joateko eguraldirik ez din egiten eta zer nahi duzue!

Amets. Arrazoiak dun, baina azken aldiak eguraldi ederra egiten din, eskertzekoa dun.

Aiora. Lehendabiziko pertsona erreak ere agertu ditun kaleetatik! Jendeak ez zautan kremaren existentziaren arrastorik ere.

Ihintza. Ez neska! Halere maiatza potente zetorren; hondartzara joateko aukera gutxi.

Amets. Izango dinagu zer egin orain ere.

Aiora. Emakumeen antzerki tailerrekoen emanaldia, xanjuangegiko festak, elkartasun eguna...

Ihintza. Gainera aurten 10 urte betetzen dizkin emakumeen antzerki tailerrak.

Amets. Oraingoan eszenatokia txiki geratuko dun hainbeste emakume antzerkilarirekin.

Aiora. Gozategiren abestiak ere hasi beharoko gaitun errepasatzen festetarako!

Ihintza. Ni prest *arin-arin* batzuk egiteko.

||||| **AMETS.** "Aizan Aiora, aurten bai, aurten bai hasi haiz baina ez dun amaitu!"

||||| **AIORA.** "Elkartasun eguneko krossean irten behar dinat!"

||||| **IHINTZA.** "Ni Erdi kalean egongo naun ur botilarekin zain, badaezpada"

Amets. Aizan Aiora, aurten bai, aurten bai hasi haiz baina ez dun amaitu!

Aiora. Elkartasun krossean irten behar dinat!

Amets. Eta hirurok irteten bagaitun?

Aiora. Bai, animatu zaitezte!

Ihintza. Ni Erdi kalean egongo naun ur botilarekin zain, badaezpada.

Amets. Delako 'Camino de Santiago' egiteko gai baldin bahaiz 6 km egiteko ere edukiko dun sasoiak!

Aiora. Honek aurreko urteko flash mob-arekin nahikoa izan zinan!

Ihintza. Ederra izan hunan hura!

Amets. Aurten ere adieraziko zienagu elkartasuna euskal presoei.

Aiora. Aurten bai! Lortuko dinagu!*





Mahaian ikasleek beren intereseko diren gaiak plazaratzen dituzte, aztertzen eta erabakiak hartzen; eta, zuzendaritza saiatzen da ikastolako proiektuetan ikasleak inplikatzeko.

Ikasleen Mahaia, herritar aktiboen heziketarako gunea

Azpeitiko Ikastola **Ikasberri Kooperatibak** modu aktiboan gizartearen integratuko diren gazteak prestatzea du helburu. Eta indar berezia egiten du gizartearen errealitatea aztertzeko eta baloratzeko eta euren pentsamendu kritikoa eta propioa osatzeko gai izango diren gizon-emakume prestuak eta jantziak hezten. Horretarako, Ikastolan ikaslea ardatz eta protagonista duen hezkuntza modelo lantzen dute; norbanakoaren izaera eta identitatea errespetatzen duena eta komunikazioa, hurbiltasuna eta parte hartzean oinarritutakoa.

Beñat Azurmendik, **Azpeitiko Ikastolako** zuzendariak, orain bi ikasturte sortu zuten Ikasleen Mahaia jarri du gazteei protagonismoa emateko ahalegin bereziaren erakusle: "Beti ari gara esaten ikasleak direla ikastolaren ardatz, ikasle kritikoak eta aktiboak hezi nahi ditugula, baina horretarako bitartekoak eman behar zaizkie". Ikasleen Mahaian DBH1etik hasi eta Batxilergoa bukatu arte gela bakoitzeko bi ikasle ordezkari eta Azurmendi bera biltzen dira. Azurmendik zehaztu du "lanerako mahai bat" dela bilgunea: "ikasleei eurentzako garrantzizkoak diren gaiak ateratzeko, eztabaidatzeko eta lantzeko aukera ematen die mahaiak. Gure aldetik, berri, **Ikastolako** proiektuetan ikasleak inplikatzeko, konponezin txikiak sortzen badira ikasleak beren artean konpon ditzaten bultzatzeko... baliatzen dugu".

Ikasleek balorazio positiboa

Naroa Uriak, mahaian hirugarren etorri parte hartzen duen ikasleak, ikasleen ikuspegitik esperientzia "baikorra" dela aipatu digu: "Xabier Eguneke egitarauan hainbat ekitaldi geuk antolatzea eskatu eta lortu genuen, ikastolako funtzionamenduan parte aktiboagoa izatea eskatzen genuen eta lortu genuen, eta iragarkien panela ere lekuz aldatu eta agerian jartzea lortu genuen, besteak beste". Funtzionamendu aldetik batxilergoko ikasleek hitz egiten dutela gehien nabarmendu du: "Tarteka ordezkarien bilerak egiten ditugu mahaira zer eraman behar dugun erabakitzeko. Mahaia bildu ondoren, berri, gelara joan eta ikaskideei bilera nola joan den agertzea oinarritzokoa da. Mahaiaren funtzionamenduan ikusten dudana arazo bakarra da ordezkarien artean dagoen adin tartea. Batxilergokoek hitz egiten dugu gehienbat eta DBHkoak isilik egoteko joera dute".

Mahaia, praktika laborategia

Azurmendik nabarmendu du heldutasunean beharko dituzten giza balio eta abileziak lantzeko "praktika laborategia" ere badela ekimen hau: "ikasleek mahaiaren dinamika honen bidez taldean antolatzen, euren iritzia defendatzen eta argumentatzen, ideiak planteatzen eta komunikatzen, besteen lekuan jartzen, arazoak konpontzen eta irtenbideak bilatzen, negoziatzen... ikasten dute".

azpeitiko ikastola

ikasberri koop.e.



ETORKIZUNERAKO JANTZITA

► Zer egingo duzu ikastolan?

- Etorkizuneko zure ibilbidea planifikatzen ikasi.
- Zure iritzia defendatzen ikasi.
- Ikas arloen ezagueretan sakondu.
- Besteei laguntzen eta benetako elkarlana egiten ikasi.
- Sormena lantzen ikasi.
- Herri ekimenetan parte hartzen ikasi.
- IKTen laguntzarekin hizkuntzak landu.

► Zerbitzuak

- Jangela eta garraio zerbitzuak
- Eskolaz kanpoko ekintzak: udalekuak, tailerrak eta ikastaroak
- Kirol eta kultur elkarteak

► Aipatzekoak

- Ikasketa maila guztietarako atea zabalik izango dituzu.
- Ordu-tegi jarraitua (08:30etik 14:30era) astelehenetan izan ezik.



ATE IREKIAK

Maiatzak 7 (asteartea)
17:00etatik 19:00etara

Hitzordurako:

943 15 12 46

Orioko bardoa, Sanagustinen

‘Aho bizarrik gabe’ solasaldien baitan Benito Lertxundi kantaria elkarrizketatuko dute, zuzenean. Sanagustinek, Uztarriak, ‘Hitza’-k eta ‘Erlo’-k elkarlanean egiten duten hirugarren alea da.  A. Agirrezabala

Sanagustin Kulturguneak, Uztarria Komunikazio Taldeak, *Urola Kostako Hitza*-k eta *Erlo*-k elkarlanean antolatzen dituzten solasaldi zikloen hirugarren alean, Benito Lertxundi kantaria elkarrizketatuko dute, zuzenean. Pako Aristi idazle urrestildarrak elkarrizketatuko du oriotarra.

Ondo ezagutzen dute elkar Pakok eta Benitok. Izan ere, Tene Mujika beka jaso ostean, ‘Benito, plazer bat izan duk’ liburu argitaratu zuten Pako Aristik eta Mikel Markezek. Aristik eta Markezek Lertxundirekin afal eta bazkalosteko solasaldi ugari egin dituzte urte askoan, eta une haietan esandakoak bildu dituzte.

Aho bizarrik gabe zuzeneko solasaldien irekiera saioan, joan den otsailean, *Berria* egunkariko Martxelo Otamendi izan zen gon-

III DATUAK

III **Zer.** Aho bizarrik gabe: Benito Lertxundi. III **Eguna.** Maiatzak 21 (asteartea). III **Ordua.** 19:00. III **Tokia.** Sanagustin kulturgunea. III **Antolatzailea.** Sanagustin kulturgunea, Uztarria, ‘Erlo’ eta ‘Hitza’.

bidatua. Iragan martxoaren 12an, berriz, Eusko Jaurilaritzako lehen-dakari ohi Juan Jose Ibarretxe.

Otsailean hasita antolatzen ari diren solasaldien helburua da Euskal Herriko pertsona ezagunekin kalitateko eta prestigioako saioak antolatzea, euskaraz.

Maiztasunari dagokionean, oro har, bi hilean behin izango dira solasaldiak, eta orubete pasatxoko iraupena izango dute.*

III ‘AHO BIZARRIK GABE’

19 **urterekin.** Erloju denda batean lanean hasi eta jabeak laut bat utzi zion. Bere kasa jotzen ikasi eta musikarako zaletasuna piztu zitzaion.

17 **disko.** Ez dok Amairu (1965) taldearen sortzaileetakoa, urte haietan lehen disko txikiak argitaratuz hasi, eta diskografia oparoa du.*



‘Aho bizarrik gabe’ solasaldi zikloen hirugarren saioan Benito Lertxundi kantaria elkarrizketatuko dute.

III BESTERIK

1 Sanisidroak Aratz-Errekan Bertso afaria izango da ostiralean, Josu Oizartzabal *Xenpelar* eta Ander Urbieta *Lazkao Txiki*-rekin. Zaturako, Izazpi-Paotxeta-Samiño mendi buelta antolatu dute, eta arratsaldean San Isidro tako feria izango da: ‘Ikia’riya’ zezenketa monumentala. Ondoren, afaria, kontzertuak eta usadio bihurtu den lehiaketa xelebrea: hiru arrautza egosi zeinek azkarrago jan. III **Eguna.** Maiatzak 10, 11 eta 15. III **Tokia.** Aratz-Erreka.

2 Babesa, preso politikoei

Presoen, iheslarien eta deportatuen aldeko Elkartasun Egunean krosa, herri kirolak, bazkaria, manifestazioa, kontzertuak, umeen gunea... izango dira, besteak beste. III **Eguna.** Maiatzak 18 (zapata). III **Antolatzailea.** Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

3 Mendi Astean, proiektzioak

Hiru proiektzio ikusteko parada izango da, besteak beste: ‘Beaufort gazta, mendia eta eskiaren esentzia Pierra Mentan’, ‘Desafio Glaciar’ eta ‘Kanadako zirko eskalaezinak, Lotus Flower Tower’. III **Eguna.** Maiatzak 21etik 26ra. III **Tokia.** Lagun Onak M.B.-aren aretoa. III **Ordua.** 21:00. III **Antolatzailea.** Lagun Onak Mendi Bazkuna.*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



enok sudupe



JOXE MARI IPARRAGIRRE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Sta. Barbara bidea, z/g – 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413
www.jmiparragirre.net/web - 012286aa@hezkuntza.net

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia.
A-D EREDUAK


LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Osakidetzako edozein ospitaletan
- Osakidetzako anbulategietako kontsultetan
- Ospitale pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Eguneko zentruetan
- Kontsulta pribatuetan
- Hortz kliniketan
- Etxez etxeko gaixoen zaintzan
- Adimen urrituentzako zentruetan
- Bainuetxeetan



AURREMATRIKULA: Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra (biak barne)
MATRIKULA EGITEKO EPEA: Uztailaren 8tik 12ra (biak barne)

HITZ GEZIDUNAK

	Jakinal	▼	Kroaziako hiri- burua	▼	Apostu egin	▼	Berdeak	▼	Trebeak, abilak
	Goragale, botagura		Egoskin mota		Lurraren gainazal		Hizki grekoa		
	▶		▼		▼		▼		▼
	* Deitura	▶							
	Gauza								
Onatiko	▼	Ekarpen	▶	▼			Omen	▶	
* Izena		Emakume izena					Ines, boka- lik gabe		
▶		▼			Herri baxe- nabartar	▶		▼	
					Bizkaiko udalerria				
Ipar EH-n, era	▶			Lapurtua, ostua	▶	▼			
Partituren euskarría				Hegazti kalakari					
▶			▼			Zeua	▶		Nor, pluralean
						Musika nota			Errep., barrea
Kasik	▶		Oxigenoa	▶	Atzikia	▶	▼	Gorotza, alegia	▶
Uretako kirola			Noren atzikia		Fosforoa			(Zah) Zakur	▼
▶			▼						Musika nota
				▼					Kontso- nantea
									Bokal mehea
Nevadako hiria (AEB)	▶				Handia	▶			▼



Egilea:
Luma

* Idazle azpeitiarra

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudietako loreak, udaberrian loratzen direnak.



A	D	L	I	T	O	M	O	J	E	S	A
L	O	M	X	K	J	A	K	O	I	T	Z
H	A	I	J	O	A	R	E	M	A	R	E
T	M	I	N	P	S	U	O	I	P	G	O
E	N	H	I	A	Z	I	N	T	O	A	L
L	A	L	E	P	R	I	T	X	O	L	A
O	U	E	A	I	R	E	S	O	M	I	K
T	A	U	N	K	O	I	G	L	I	H	A
K	E	M	I	R	J	A	S	E	N	I	E
N	O	A	M	A	I	X	P	T	L	A	D
Z	A	O	S	I	Z	T	R	A	N	Z	I
N	E	D	A	U	S	T	D	U	R	O	K
A	L	I	J	T	U	E	R	H	I	A	R
G	O	M	I	N	T	Z	I	T	X	U	O

||| SOLUZIOAK |||

HITZ GEZIDUNAK

A	R	R	A	L	●	O	N	R	●
F	●	A	O	L	O	P	R	E	W
●	K	K	●	A	S	●	O	●	●
K	●	U	Z	●	L	A	L	T	●
A	S	I	A	T	B	E	●	A	●
O	G	A	N	E	R	A	K	I	●
E	I	●	R	I	A	R	●	●	●
A	L	O	R	O	S	E	●	●	●
●	●	●	●	●	●	●	●	●	●

HIZKI ZOPA

O	X	L	I	Z	I	N	I	G	O	M	I	O	G
R	I	H	I	A	R	●	●	●	●	●	●	●	
K	U	R	O	K	●	●	●	●	●	●	●	●	
I	Z	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
D	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
E	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
A	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
K	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
L	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
K	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
A	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
L	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
L	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
O	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
G	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
E	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
A	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
H	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
A	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
L	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
S	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
A	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	

||| ZEIN DA? |||

- ||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Maiatzak 24 (ostirala)
- ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Aisia Hotelean bi lagunentzat talasoterapia zirkuitua eta afaria
- ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da
- ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA



||| UZTARRIAREN APIRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA |||

ZEIN DA?



JOSEBA IRIONDO, KAZETARIA



IRABAZLEA



Izar Arregi Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 149. irabazlea. Aisia hotel-aren eskutik bi lagunentzako irabazi du sari gisa. Argazkian, Izar Arregi bere bi alabekin.



HILABETE HONETAKO SARIA
2 lagunentzako talasoterapia zirkuitua eta afaria



ELKARRIZKETA DIGITALA ||||| mireia epelde (txirrindularia)

“ALdaketak ondo etortzen dira, ez urtero, baina noizean behin bai”

Joan den urrian urtebeterako kontratua sinatu zuen Michela Fainini italiar taldearekin. Dagoeneko hasi dute denboraldia, eta orain lana tarteko Azpeitia eta Bilbo artean badabil ere, ekainean Italiara joango da bizitzera.

Zer aurreikuspen dituzu aurtengo denboraldirako? Eta, zein proba da gehien gustatzen zaizuna?

Nik uste dut denboraldi ona izango dela; taldea ona da, giro ona dugu eta mailako txirrindulariak. Guztia juntatuz gero, koktel on bat aterako da, seguru. Beti esan izan dut nire karrera maiteena Italiako Giroa dela, urtero hara joateko desiatzen egoten naiz, badu zoezer berezia karrera horrek. Baina, egia da, Holandan ere oso gustura ibiltzen naizela.

Nolako taldea da Michela Fainini? Zer helburu dituzu?

Talde oso profesionala eta serioa da. Ez zaigu ezer falta, baina trukean

esfortzu bera eskatzen digute. Oso talde ona dugu tekniko ere: masajistak, mekanikoak, zuzendaria eta, nola ez, presidentea. Karrera guztietara etortzen da gurekin. Askok ari naiz ikasten eta gozatzen. Azken hori, emaitzek lortzeko, oso garrantzitsua da. Helburua da beste aurrerapauso bat ematea da; nire karrera kuttunetan maila erakustea eta



etaparen batean eskapadan sartuz gero, beti ere irabazteko aukera gehiago izaten da.

Gaztetxoen artean apenas ikusten da neskarik probetan parte hartzen. Zure garaian ere hala al zen?

Ni hasi nintzenean neska bakarra nitzen. Maila txikietan ez dira neska asko ikusten, edo nik behintzat ez ditut asko ikusi. Baina egia da gero Euskal Herrian edota Espainia mailan azken bi urteetan lehen baino kadete gehiago ikusten dela, eta hori pozgarria da.

Entrenatzerakoan nola ibiltzen zara gustorago, bakarrik ala taldean?

Entrenamentuen arabera, batzutan bakarrik joatea tokatzen zait, serieak edo lan espezifikoak egin behar dugunean. Baina konpainian joatea beti da atseginagoa. Ahal dudana guztietan norbaitekin elkartzen naiz.*

EFEMERIDEAK |||||

1584

Kontuak gaizki eginda. Herri barruan eta kanpoan bizi ziren asko udaletxean bildu ziren, bakea lortu nahia. Kanpokoek zioten, bi mila dukat zor zituela herriak, kontuak gaizki egin zituelako. Batzordea izendatzea erabaki zen, kontuak ikusteko.

1685

Nahastu gabeko sagardoa. Bernardino Azpillagak eta Juan Etxeberriak nahastu gabeko sagardoa kanpotik ekartzeko baimena eskatu zuten, gero, herrikoak amaitzean, saltzeko. Herriak ezezkua ematea erabaki zuten, eta bide batez, kanpoko sagardoa ekarri eta saltzen zuenari 50 dukateko isuna ezarriko ziotela jakinarazi zuten.

Iturria: Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak
||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...



||| sartu, eta hartu parte ||| egunero **2.000** bisita pasa (6.000 orri)

Talasemia

Odoleko gaitza da; herentziaren jatorria du eta odolaren osagarri garrantzitsuenei eragiten die: globulu gorriei. Horiek oxigenoa gorputz osora eramaten dute, eta horiek gabe ezingo ginateteke bizi.

Kantauri aldean baino Ekialdean gehiago izaten da gaixotasun hau. Detektatzen ez diren kasuak ere izan ohi dira. Hain da sinplea gaitzaren koadroa, ez da sintomarik agertzen eta horrela bizitza osoa eramaten dute gaitzarekin, tratamendurik gabe.

Garaiz egindako diagnostikoak hematologoek gain utziko dituzte, kontrola eta tratamendua burutzeko. Ziurrenik, odol transfusioa egingo diete edo hezurretako muin transplantea; horiek gaur egun ohiko teknikak bezala jotzen ditugu nahiz eta oso serioak izan, baina kasu askotan sendatu egiten dute eta horrek animatzen gaitu, gaixoari horrelako kontuzko ebakuntza kirurgikoa egitera.

Sendagileok gero eta garrantzia gehiago ematen diegu herentziaren faktoreei, eta zientziaren aholkua da gaixoak azterketa egitea, talasemia mota larriren bat ondorengo belaunaldiari ez pasatzeko.

Desagertzean den gaixotasunaren aurrean aurkitzen gara, sendakuntzak gauzak behar bezala egiten baditu. Ez ahaztu giza bizitza osasuntsua planetako aberastasunik handiena dela.*



Julian bereziartua

OLATZ BIZKARGUENAGA udaletxeko harrerakoa



- 1. Jendea zertara dator?**
Errolda-agiria eskatzera, urte osoan. Orain, terrazan mahaia jartzeko baimen eske datoz tabernariak.
- 2. Zer hizkuntzatan jotzen du jendeak?**
Euskaraz, erabat.
- 3. Eskatu dizuten gauzarik bitxiena?**

Etxean banketea zutela eta aulki eske etorri zen bat.

4. Egunean zenbat bisita?

Boladak izaten dira, baina gutxi gorabehera 30 inguru.

5. Eta zenbat dei?

Auskalo! Etxean gertatu zait telefonoa hartu eta 'Azpeitiko Udala egun on', esatea.

6. Zer edukazio dugu?

Ona. Jubilatua iaioak dira beraiek nahi dutena lortzen.

7. Jendearen pronto txarra zuk jasan behar izaten al duzu?

Bai. Enbargoen kasuan, jendea haserre dator, eta beno, hori da nire lana.*

Ainitze Agirrezabala

lentzeria mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

ostadar optika
OPTIKOAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

KIMU BATEKO EKOLOGIKOEN TXOKOA
HURBILDU ETA EZAGUTU !!
natural 100% EKOLOGIKOEN TXOKOA 100% natural
Kimu bat

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE
www.segurosbilbao.com
ERA GUZTIETAKO ASEGUURUAK:
-ETXEBIZITZAK
-AUTOAK
-DENDAK
-PERTSONALAK eta abar.
AURREZTEKO PRODUKTU INTERESGARRIAK. BAITA AURREZKIENTZAKO ERE.
Joxe Migel Muguruza (Urola Edirako agente eskusiboa)
Telf: 652.776.909 jm.muguruza@segurosbilbao.com

Ardiak, sartuta?

Jokorako grina izan duten gizonen topaleku izan da Arrona taberna, sei hamarkada luzez. Iazko abenduan itxi zituen atea, teilatua erorita. 📌📷 Ainitze Agirrezabala

Gauza bat jakin nahi diat. Ardiak barruan sartuta al dituk?'. Buruz buru, karta-jokoan hasterako, egiten zion galdera kontrarioari. Partida baten ostean doblea jokatzea gustatzen zitzaiona zen bata; galtzaillea, bestea. Gauzak aldrebestu eta galtzen hastean, jokoa bere hartan lagatzeko asmoz, ardiak kanpoan zituela eta sartzera joan beharra zuela esanda, mahaitik altxatu eta alde egiten zuen. Horregatik, jokoa ona zenak,

eskarmentatuta, ezertan hasterako botatzen zion ardien gaineko galdera. Broma gutxi izaten zen Arronanean, behin kartetan hastean.

Taberna leporaino beteta izaten zen, eta han zeuden gizonak ketan lehortuta. Etiketa zuriko 103 pattar kopa eta puru handiak jokoa bidelagun izaten zituzten. Mahai haie-tan ikusitako eta entzundako hamaika apustu eta istorioren lekuko izan dira Arronane-ko pa-retak, sei hamarkada luzez.

Bustinzuriko Errebaleko laugarren zenbakidun eraikineko etxabea zabaldu zituen atea Arrona tabernak 1948an, iazko abenduaren 19an eraikinari teilatua erori zitzaion arte. Susana Korta etxeoandrea, izatez Zumarragakoa, lehenago Pastorkua zaharrea aritu zen lanean. Arroako gizon batekin, Josemari Urbietak *Arrona*-rekin, ezkondu zen. Senarrak kotxeak konpontzeko tailerra zabaldu zuen, baina negozioa ondo joan ez, eta haren



Susana Korta etxeoandrea Soberano botilarekin, eta tabernan lana egiten zuen neska bat kafeak ateratzen. ||| Begoña Arakistain

EPI LARRAÑAGA

73 urte

“Jubilatuen hirugarren etxea izan da Arrona”

“Arrona ixtea baino nahiago nuen nik Loiolako komentua ixtea. Bai-gera I eta II bezala, Arrona jubilatuen hirugarren etxea izan da. Oroitzapen onak ditut. Azpeitian, saninazioetan, barrileko zerbeza Arronak bakarrik ekartzen zuen. Mutil koskorretan, Joxemari *Arronak* barran harrapatzen gintuenean ostikoz jo eta bidaltzen gintuen. Susanak esaten zion: ‘Joxemai, ezeitzezu bialdu, hauek izengoie geroko gure klientiek eta!’. Bai izan ere! Handik irten ere ez ginen egiten. Kasinoa zen hura”.

lekuan taberna irekitzea erabaki zuen Kortak. Gazte alargundu zen emakumea, eta bigarren aldiz ezkondu, Zestoako Migel Arakistain *Murgil* pilotari entzutetsuarekin. Urte luzez, astegun eta asteburu, lana franko egin zuten. Urteetan Arronanekeo bezero izandakoen esanetan, “Susana asko balio zuen etxeoandrea zen; sukaldari ona, bihotza eta dena ematen zuen emakumea. Murgilek, berriz, jendea bereganatzeko dohaina zuen, jendearekin traturako balio zuen”.

Etxeko espezialitatea, tripaki-zopa

Arronaren urrezko garaian, jai egunean ez ezik, astegunean ere erruz biltzen zen jendea tabernara. Hala diote Arronanekeo alaba Be-goña eta Marijo Arakistainek. “Tabernako ofizioa umetan ikasi genuen. Lan asko izaten zen, eta neska koskorretan hasita egunero lagundu behar izaten genuen. Taberna gainean bizi ginen, bigarren pisuan, eta sukaldaria han genuen. Taberna beteta, zientoka otordu ematen genituen, eta amak janaria prestatu eta gu eskaileretan gora eta behera ibiltzen ginen, jana zerbitzatzeko. Umetan, hurrengo egunean eskolara joateko, garaiz oheratzen ginen, baina gaueko hamaiketan esnatzen gintuzten, Martxielenean arratsaldeko txanda eginda lanetik irten ziren langileei afaria ematera. Labean lanean arituta, bero-bero eginda etortzen ziren eta txanpain freskoa ateratzen genien”.

Etxeko berezitasuna tripaki-zopa zen. Baita gisatua, oilaskoa eta legatza frijituta ere. “Tabernan jaten emateaz gain, plater ho-

MANUEL AGIRREZABALAGA

79 urte

“Kristoren diruak jokatzeko ziren han”

“Neure etxea bezala izan da, fami-liako tratua genuen. Etxekoandre oso ona zen Susana, jendearekin tratuan asko balio zuen. Inoiz afaltzera joan eta tabernan lekuri ez bazen etxeo sukaldaria ematen zigun jaten. Bihotza eta dena ematen zuen. Herrian ez da izan Arronanekeo bezalako beste joko-lekuri. Batzuk zioten karta-jokoan milioi bat pezeta eta dena jokatzeko zela. Kristoren diruak jokatzeko ziren. Azkoitia bizi naiz urte askoan, baina erori den arte, arratsaldero etortzen nintzen”.

INAZIO ESNAOLA

76 urte

“Gaupasa egin izan genuen karta-jokoan”

“Arronanera ez joateko gaixo egon behar nuen. Kafea hartuz jokoan egitea gustatzen zitzaigun. Normalean, tutean aritzen ginen; txintxonean ere bai saio galantak. Gaupasa, askotan. Txoko bat bazuen atzekaldean, lau-bost mahai zeuden, eta 62 lagun kontatuta gaude han. Ikaragarrizko tabako usaina ekartzen genuen. Nagusia, Murgil, jokuan ari zela askotan egoten nintzen barran kafeak eta kopak ateratzen. Murgilek esan ohi zuen Arrona erori baino lehenago hilko ginela gu”.

ALBERTO BEREZIARTUA

89 urte

“‘Tripaki zikinak’ ziren espezialitatea”

“50 bat urtean, arratsaldero, ibili naiz han, erori den arte. Jateko lekua baino gehiago izan da jokorako taberna. Pare pare Aitzakinakoa zuen eta han egundoko jendetza izaten zen afaltzen ostiral eta zapatu gauean. Kanpotik ere, Zumarragatik, Eibartik, Zestoatik... jende asko etortzen zen, eta ohitura zen han afaldu eta kafea hartuz jokoan egitera Arronara joatea. Hango purua erre beharra, ketan egoten ginen. Etxeko espezialitatea ziren ‘tripaki zikinak’, gisatua eta legatza”.



Arronanekeo koadrila, Mendizaletan jokoan.

riek nahiz kaxuelitak erabat zerbitzatzeko genituen herriko soziedadeetara eta Arronaren aurrean zegoen sagardotegi estiloko Aitzakinera ere. Gure amari askotan ekartzen zioten ehizakia ere –basurdea, usoak...– prestatu eta ondoren soziedadean jateko. Aitzakinera kanpotik –Zumarragatik, Elgoibartik, Zestoatik...– jende asko etortzen zen afaltzera, eta afalondoan ohitura zen kafea hartuz jokoan egitera gurera etortzea”.

Udako oporrak, Arronanean

Jateko lekua baino gehiago jokorako taberna izan da Arrona. Kartetarako bizioa zutenen topalekua, hain zuzen. “Azpeitian jokalaria

izan eta Arronanetik pasatu gabarik ez da egongo”. Hala diote urte askoan tabernako bezero izandakoek: “Jokoan hastean dena ahazten zitzaigun, jatea, etxean zain genuen emaztea... Tabernak atzekaldean bazuen erreserbatu moduko bat, eta leku txikiagoan hainbeste lagun sartzen ginien! Orduak pasatzen genituen kartetan, diru asko jokatu eta kontsumo handia egiten genuen”.

Arakistain ahizpen esanetan, “egun ez bezala, garai batean bizitza sozialak pisu handiagoa zuen. Jendeak ez zeukan kotxerik, ez zen oporretara joaten, ondo janzteak ez zuen egun duen garrantzia... Lanetik atera eta tabernan, lagunartean, egon zalea zen jendea”.

Atzera begira jarrita, makina bat istorio dute bata bestearen atzetik kontatzeko. “Batzuk egunero etortzen ziren eta etxeoak bezala ziren. Bagenekien zer atera behar zitzaien, galdetu beharrik izan gabe. Atean sartzen ikusi orduko genekien jenio txarrean zein zetorren. Behin baino gehiagotan ere bai, emazteak tabernara deitu gizonaren galdezka eta han ez zegoela esan. Udako oporretan, gizonetako bat baino gehiago geratzen zen etxean bakarrik, *de Rodriguez*, emaztea eta seme-alabak bakazioetara bidalita. Gurean egiten zituzten otordu guztiak, bazkaldu, afaldu... lotara baino ez ziren sartzen etxera”.

Azken hamarkadetan, gaueko giroari ere lotu zitzaion Arrona, parrandarako taberna ere bilkakatuz. Jokoaren esentziari eutsi dioten bezero zintzoak izan ditu, azkenera arte. Orain, Arronanekeo ‘umezurtz’ koadrilak jokorako topaleku berria du, Mendizaletan. ✘

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
EAJ	81 55 70	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Sortu	15 72 00	Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	
EA	81 00 11		943 08 06 88

FARMAZIAK (MAIATZA)

EGUNEZ

1-4-5-7-10-16-30	2-14-20-21-22-23-24-25-26-31	3-8-27	6-11-12-15-17-29	9-13-18-19-28
Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 080258	943 811350	943 811949	943 811274	943 815974

GAUEZ

1-13-18-19-31	2-14-15-27	3-16-28-29	4-5-17-30	6-7-8-9-10-11-12	20-21-22-23-24-25-26
Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Beristain (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).
943 850660	943 852989	943 851235	943 851966	943 811949	943 811350

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Maiatzaren 13an eta 29an
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPOTXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



SEXU AHOLKULARITZA.

Zerbitzu honen helburua da herritarrak harremanen inguruko kontsultak egin eta arreta jasotzea. Kontsultak Internetez (azpeitianplax@gmail.com) nahiz aurrez aurre egin daitezke, emakume-txokoan.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

ANE ODRIA

Amsterdam

“kultur eskaintza oso zabala eta aberatsa zagon”

Enpresa-ikasketak ari da ikasten, eta karrerako azken urtean Herbeheretara joana da. 📎 **Ainitze Agirrezabala**

Noiz joan hintzen **Amsterdamera?**

Urte hasieran, urtarrilean, etorri nindunan, ikasturtea otsailean hasten geninan, baina egun batzuk lehenago etorri gindunan pixka bat hiria ezagutzera.

Zer dela eta?

Enpresa-ikasketak egiten ari naun, eta ekainean amaitzen dinat karrera. Amaiera emateko modu polita dela uste dinat; kultura eta jende berria ezagutzeko aukerak asko erakartzen nindunan.

Nolakoa dun horko jendea?

Holandar jendea beti laguntzeko prest zagon, jatorra dun baina aldi berean, gertuko hartu-eman estua edukitzea oso zaila dun, oso hotzak baitira.

Azpeitiak ez duen zer din horrek?

Hiri handia izanik, kultur eskaintza oso zabala eta aberatsa duela esango ninake. Beti dago zerbait ikusi edo egiteko!

Amsterdameko zer gustatu zain gehiena eta zer gutxiena?

Kale gorri inguruak, Dam plaza, etxe oker-tuak... asko gustatzen zaizkidan. Gutxien

eguraldia; azken 25 urteetako negurik hotzena ari da izaten. Eguzkia ikusteko zain gauden! Gustatzen ez zaidan beste gauza dun jendeak ingurugiroarekiko duen kontzientzia eskasa. Harrituta geratu gindunan zaborra bereizten ez dutela ikustean, kristala bakarrik bereizten dituen, beste zabor guztia batera doa. Eta hiria bera zikina dun oso.

Azpeititik zer botatzen dun faltan gehiena?

Dudarik gabe nire jendea, amak prestatutako janaria eta kuadrilako poteoa!

Euskal Herriaz ba al zekin ezer horko jendeak?

Orokorrean jende gehientsuenak ez zekin Euskal Herria non dagoen ere; beste batzuek, berriz, bertako egoeraren berri bazekitene eta interesa azaltzen dituen, baina ez dun ohikoa.

Euskaldunik ba al zagon hor?

Euskaldun oso gutxi ezagutu eta ikusi dinagu Amsterdamen. Arabako bi mutil ezagutu dizkinagu, eta nohizbehinka elkarrekin gelditzen gaituen afaltzeko edo parrandaxoren bat egiteko.*



1. 3. Ane Amsterdamen. 2. Jaione eta Ana lagunekin, Amsterdameko taberna batean.

1.362 kilometrora dago Azpeitia Amsterdametik.



libertitu, behintzat

Ez dakit noiz, baina gazte izateari utzi genion. "gaztetasuna, izpiritua-ren egoera dek, norberaren barruan zegok". baita zera ere. halako batean, batere uste ez duzula, hezurak kraskatzen hasten zaizkizu, edo begia galtzen duzu, gerria gogortzen, esprint koxkor bat egin eta arnasa estutzen, maniak areagotzen, azala giharretatik libratzen... hasi zara xahartzen. eta zer uste zenuen, ba, betiko zinela? ez ginen betiko, ez gara betiko, egunen batean kito. bitartean, bizi, "hil arte bizi", eta ez dago txarki esana. hil arte bizi horretan, bizi nahi izaten dugu, ondo bizi ere, libertitu, ondo pasatu. azpeitian ginean, gazte sasoiaren orduan, lan pixka bat egin eta libertitu nahi izaten genuen. batean, soreasu eta zelaitxon izango ginen pelikulak ikusten. inguruan herri gutxik zituen bi zinema-areto. suerte horixe guk. gutxi izango dira urteen joanean azpeitiarrek hainbeste film ikusitakoak. zinemarekin batera ziren taberna-zuloko egonaldiak, erdi kalean gora, kalean behera egiten genituen maratoiak, futbol saioak, berbenak, xoxoteko igoerak eta neska-laguntzak. horrela joan zitzaigun gazte garai haren zati bat.

sasoi batean ez zitzaigun burura etortzen orain egiten dugun jolasik. orain, azkena, auzoari kristalak hausten ibili gara. ez da auzo ona ere, eta behar genuen bengantza klasearen bat ere, barruko korapiloa askatu bagenuen. kontatzea nahi? auzoa gure lagunaren andrea endredatzen hasi zen halako batean. lehenengo, uste izan genuen borondaterik onenean ari zela gure auzo hori, gure adiskide handiaren andreak burukomin handiak izan eta laguntza behar zuelako. laguntza psikologikoa, esaten da orain. laguntzen hasi zitzaion, eta gero eta laguntza handiagoa, eta gero eta dependentsia handiagoa gure lagunaren andreak, gero eta goxoagoa auzoak ematen zion laguntzarekin, gero eta goxoagoa... harik eta andreak bere gizonezkoari esan zion arte zer laguntza ematen ari zi-



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Amorrazioan, hartu ditugu harriak, joan gara auzoaren etxe atarira eta kristal guztiak txikitu dizkiogu

tzaion. orduan, trumoia andre-gizonen artean, senar-emazteen artean esan nahi dut. hitz egin dute eta konpondu dira, edo konponbidetan ikusten dut haien arteko harremana. auzoa ez, haien harremanetik kanpo ikusten dut, ez da ur garbia, eta ur garbia ez dena zikina da. kasu honetan bezala. eta, amorrazioan, hartu ditugu harriak nire lagunak eta biok, joan gara auzoaren etxe atarira, eta kinki! eta kanka!, eskura genituen kristal guztiak txikitu dizkiogu inor ondoko leihotara irten baino lehen, udaltzain ertzain eta polizia kolore guztiak etorri baino lehen. txandal-kapusaia jantzi eta ezkutatu gara handik, kamera ezkutua-ren beldurrez, bihotza lub-bup!, lub-bup! azkarrean. tabernara sartu eta ogitartekoak eta garagardoa eskatu dugu, gaztetan bezala.

horrela libertitu gara azkena hiri honetan, garai hartan herrian bezala...✱

BATXILERGOKO eta LANBIDE HEZIKETAKO AURREMATRIKULAZIOA ZABALIK



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

DBH - BATXILERGOAK - LANBIDE HEZIKETA



Kalitatea zure zerbitzura

matrikula zaitez on-line:

www.urola.org

BATXILEGOAK

- ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 2tik 14ra

Perdilegi, 3 - AZPEITIA

-Tif: 943 81 37 70

Altamira auzoa z/g - AZKOITIA

-Tif: 943 85 21 74

LANBIDE HEZIKETA

- ERDI MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Arotzeria eta altzarigintza
- Instalazioa eta altzari hornikuntza

- GOI MAILAKO ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak

ATE IREKIAK

- Maiatzak 11 larunbata 11:00etan
- Maiatzak 16 osteguna 18:30etan

AURREMATRIKULAZIOA

Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra

Altamira auzoa z/g - AZKOITIA

-Tif: 943 85 21 74





Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50

**UDABERRIA
UDA 2013**



horzkari
hortz osasun klinika



PREBENITZEA, AURREZTEA DA!

Zatoz zure aho-osasunaren errebisioa egitera

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

www.grupohorzkari.com